

uk

165. zenbakia / 2009ko azaroaren 9a



izarren distira!

II.edizioa

Getxo

Casting-ak: AZAROAK 10 eta 11
Gala: AZAROAK 21, 19:00etan
ANDRES ISASI MUSIKA ESKOLAN
(AREETA, GETXO). **Sarrera dohainik**
Gonbidapenak: Villamonte Kultur Etxean
Aurkezlea: NEREA ALIAS
Gonbidatuak: BREAK DANTZARIAK
Informazio gehiago:
www.izarrendistira.nireblog.com

Tuentin
ere zure
zain!



UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea
HELBIDEA: Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Maitane Nerekan
AHOLKULARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Julen Nafarrate, Maitane Nerekan
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Berbets Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (94 491 13 37)
KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta



Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteentzako topaguneko partaidetza da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



TRATU TXARRIEN BIKTIMAK ARTATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA: 900 940 111

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Denbora makina.
7. LEHEN ETA ORAIN. Areeta, Bizkaiko Zubitik.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Ivan Corcuera.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Obrak Uribe Kostan.
28. ARGAZKIA. Obrak Erromon.
30. BERBETAN. Joxe Azurmendi.
34. FOTOGRAFIA. Blackpool.


KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Hamaika Telebistako zine klasikoak. Film Labur Lehiaketa.
43. MUSIKA. Auskalo Non erromeria taldea. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Erlea aldizkaria. Erreseinak.
45. KIROLAK. Getxoko Multikirolak ekimena.
46. ELKARRIZKETA. "Katramila", Urtxintxa Eskolaren argitalpen barria.

AMAITZEKO

49. NORA JOAN. Matxitxako Jatetxea, Algorta.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Erandioko "Goiko Landa" Futbol Taldea, 1959.
54. AITORMENAK. Oihana Bartra.

Azala: Andoni Fernandez eta Igor Mercado



30 Joxe Azurmendi

Berbetan

Zegamako filosofoa, saiogile eta idazleagaz egin dugu berba, hizkuntzaz, herriaz, Gandiagaz e.a.



11 Ivan Corcuera



54 Oihana Bartra

MÉGANE EMOTION

85cv dCi

10.600€*



1.000€-ko
deskontua
aukerako edozein
ibilgailu
erostean**

ZUK DENA NAHI DUZULAKO

RENAULT OCASIÓN

* PSP transferentzi gastuak baima. Ikuskarazko eta eskaintzako bertsioak desberdinak izan daitezke. ** 10 urte baino gehiagoko kotxea uztean.

BILBO BERRI BIZKERRE, 3. GETXO. TELÉFONO: 94 430 68 81 www.bilboberri.com



Leihatila

> Pedro Garcia Larragan

EITBn

Abertzalea naiz. Eta halere, EITBn lan egiten dut. Are gehiago: gustura nago, nahiz eta erabaki danakaz ados ez egon. Miraria? Ez. Kazetaritza. Errespetuaz tratatzen naute, eta orain arte behintzat, ez didate nire politika ideiak zeintzuk diren galdetu. Normala. Abertzalea izateak ala ez, ez luke garrantzirik eduki behar izango. Gure lan honetan benetan garrantzia duena laburpena da. Aldous Huxleyk orain dela 80 urte idatzi zuen laburpen on baten beharraz. Berak esaten zuen: ‘Bizitza oso laburra da, eta jakintza handia. Beraz, nahiz eta urtenbide zatarra izan, laburpen bitartez soilik jakintza arlo askotara hel gaitzke. Kontua da, laburpena ondo lantzea’. Arazoak datoz 'laburpena' gure mesede politikarako erabili gura dugunean. Orain, aurreneko zuzendaritzako batzuk kulunkan daude. Euren etorreragaz, orain dela 10 urte, EiTBko hainbeste profesional zintzo eta oni gertatu zitzaion kontu bera. Alde 'txiki' batez: orduan, inork ez zuela aireratu azpijoko edo zitalkeriarik. Orain bai. Zergatik ote? Bakoitzak eman duena jasotzen du.

gu geu

Eguraldiaren eskizofreniaz

Lerro hauek idazten ditudanean, kalean umeak plazan olgetan daude, mahuka motzetan eta izerditan blai. Eguzki izpiak bulegoko leihotik sartzen dira eta kaleko termometroak 25 gradu daudela esaten digu. Uribe Kostako hondartzak harean kometagaz edo paletan jokatzen dauden gizon-emakumez gainezka daude. Baina, UK-ko orrietan, ez dituzu Portu Zaharreko edo Leioako jai egitarauak aurkituko, ezta udako giro epela erakusten duten argazkiak ere. Izan ere, udazkenean bete-betean sartuak gaude, eguraldi eskizofrenikoak kontrakoa sinestarazi gura badigu ere. Garai honetan, lau pareten artean antolatu ohi dira kultur ekimenak eta tabernetan izaten ditugu berbaldiak lagunakaz. Baina, zeinek daki, agian Getxon azaroan izango ditugun Euskal Kulturaren Jardunaldietako ekintzak, antzoki eta tabernetatik, hondartzara eta herriko plazara eroango ditugu. Edo, agian, lerro hauek irakurtzen dituzunerako, gure herrietako kaleak zuriz jantzi dituen elurte ikaragarria izan dugu eta ezin izan gara udazkenean perretxikoak bezala hazten diren kultur ekimen guzti horietara heldu. Eguraldiak, psikiatraren beharra duela dirudi; agian, New York-eko “yupiak” bezala, bere burua psikoanalizatu behar du. Ostantzean, Euskalmeteko lagunak zaingo dira terapiaren faltan egongo direnak.

UK-ko lantaldea

Iritzia

Urriaren 23an, ondoko eskutitza heldu zitzaigun UK-ko e-postara. Arrigunaga eta Aixerrota artean egiten ari direnagaz haserre daude Getxon Biziko lagunak.

Lanak baimenik gabe

URA agentziak lanak gelditzeko uztailaren 20an emaniko agindua ren ondoren Getxoko Udalak Arrigunagako zelaiak eta Bosgarrena kalearen arteko Pasealekuaren Proiektuaren lanakaz aurre-ra egiten zuela ikusita, Getxon Bizi Auzo

«Gure kostaldean atzeraezinak izango diren kalteak eragiten ari dira»

Elkarteak uztailaren 30ean aurkeztu zion URARI emaniko agindua betearazteko idatzizko eskaera. Gure idatzizko eskaeraren ondoren Udalak lanen zati bat geldiarazi zuen, baina obra osoa geldiarazteko agindua izan arren, lanek uda osoan zehar jarraitu dute Aixerrota parean eta orain amaitutzat eman daitezke proiektuaren zati horri dagozkion lanak. Kostaldearen gune hau zaindu eta babes-teko eskumena duen URA Agentziaren agindua ez du bete Getxoko Udalak eta URA Agentziak ez du egoera zuzentzeko eta agindua betearazteko ezer egin. Egin-dako lanetan porlanez bete da itsaslaba-

rraren ondoko 100 bat metroko luzera eta 3 metroko zabalera duen eremua eta Aixerrota parean hainbeste hurbildu dute porlanezko zorua amildegira, ingurua are gehiago kaltetuko eta desitxuratuko duen baranda jarri beharko dutela. Ingurumen Ministerioaren Euskal Herriko Itsasertz-Mugarteak abuztuan eginiko txosten tek-nikoan eta ondoren Jaurlaritzaren URA Agentziak eginikoan oinarrituta, irailaren 18an proiektuari baldintzak ezartzen dizkion ebazpena sinatu zuen URAREN Zuzendari Nagusiak.

Lanei berrekin aurretik (lanak gelditu-ta baleude bezala dago idatzita aipatu ebazpena) proiektua zenbait baldintzatar a egokitzeko, proiektuaren aldaketak Urari ezagutarazteko eta Agentziaren azken onespena jasotzea eskatzen du irailaren 18ko ebazpenak, baina aste honetan ber-tan espedienteaz baieztaatu ahal izan dugu-nez, Getxoko Udalak ez dio URARI Proiektuaren inolako aldaketarik, ezta egokitzapenik aurkeztu eta Bosgarrena kalea eta Aixerrota arteko zatia amaitzeaz gain, Arrigunagako zelaietara jaisten den zatian urriaren hasieran berrekin zieten lanei; gainera, amildegiaren parez pare eta babesik gabe ari dira aurrera eta atzera lanetako ibilgailuak eta langileak.

Getxoko Udala eskumenduna den URA Agentziaren baimenik gabe uztaile-tik hasita eta etenik gabe ari da Arrigunaga eta Aixerrota-ko pasealekuaren lanak egiten. Lau hilabete hauetan gure kostaldean atzeraezinak izango diren kalte-ak eragiten ari dira eta itsaslabarrak zain-tzeaz eta babesteaz ustez arduratzen diren erakundeak, Ministerioko Euskal Herriko Itsasertz-Mugartea eta Jaurlaritzaren URA Agentzia euren bulegoetan daude ordena-gailuei begira. Sinesgarritasun maila mini-moari eutsi nahi badiote, emandako agin-duak eta idatziz jasotako baldintzak lehen-bailehen betearazi beharko dizkiete!

Getxon Bizi auzo elkarte a



2008KO URRIABIZIKANO ZUEBIA (ARRETA)

Denbora makina/ Urrian zehar, Europako Ondarearen Jardunaldien barruan, bisita antzeztuak egin dituzte Getxoko eraikin esanguratsuenetako batzuetan. XX. mende hasierako gizon-emakumeak denbora makinan sartu eta gure egunetara etorri dira, euren istorioen bitartez herriko historia irakasteko. Lana amaitutakoan, Txurruka kaitik ibilaldixoa egin du Mauriziak. Oso aldatuta dago herria; baina, batez ere, gizon burusoilak harritu du. Begiak estalki beltz batez ezkutatzear gain, eskua belarrian jarrita, bakarrik berba egiten doa kaletik. “Herriko zoropak ere aldatu dira” pentsatu du gure Mauriziak. O / Argazkia: Asier Mentsaka

BIZARRA LEPOAN: GETXOKO EUSKARA ELKARTEA GARA ETA 14 URTE DARAMATZAGU EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEN. BAPIRUKETA GEHITU KIROLERA DIRA GURE EGITASMO NAGUSIAK, HERRIKO EUSKALTEGIEKIN BATERA EGITU ELKARTEAN ERE PARTE HARTZEN DUGU.
SOMOS LA ASOCIACIÓN DE EUSKERA DE GETXO Y LLEVAMOS 14 AÑOS FOMENTANDO EL USO DEL EUSKERA. NUESTROS PROYECTOS PRINCIPALES SON BAPIRUKETA Y GEHITU KIROLERA, JUNTO CON LOS EUSKALTEGIS DE GETXO TAMBIÉN PARTICIPAMOS EN LA ASOCIACIÓN EGIZU.



Bapiruke

Gabonetako koloniak

NORENTZAT: 5-12 URTE BITARTEKO UMEENENTZAT

NOIZ: ABENDUAK 28, 29, 30 eta URTARRILAK 4, 5

NON: J.B. ZABALA ESKOLA eta ROMO ESKOLA

PREZIOA: BAZKIDEEK 45 € EZ BAZKIDEEK 60 € GUTXIENEN ERRENTADUNEN 10 €*

IZENA EMATEKO EPEA:

BAZKIDEEK: AZAROAREN 23tik 26ra
EZ BAZKIDEEK: ABENDUAREN 1etik 4ra

SOCIAS: del 23 al 26 DE NOVIEMBRE NO SOCIOS: del 1 al 4 DE DICIEMBRE

IZENA EMATEKO LEKUA:

BIZARRA LEPOAN EUSKARA ELKARTEAN
KARITATE KALEA 1, 10. BULEGOA ALGORTA

LA INSCRIPCIÓN SE HARA EN LA OFICINA DE BIZARRA LEPOAN

IZENA EMATEKO: (E.K. 3035 0108 06 1081032766) INGRESOAREN ZIURTAGIRIA ETA OSAKIDETZAKO TXARTELAREN FOTOKOPIA BULEGORA EKARRI ETA BERTAN IZEN EMATE ORRIA BETE BEHAR DA. IZEN EMATE ORDENEAN ONARTUKO DIRA ESKAERAK.
CON EL ABONARÉ DEL BANCO Y LA FOTOCOPIA DE LA TARJETA DE OSAKIDETZA HAY QUE VENIR A LA OFICINA Y RELLENAR LA HOJA DE INSCRIPCIÓN. LAS SOLICITUDES SERÁN ADMITIDAS EN ORDEN DE MATRICULACIÓN.

* GETXON GUTXIENEN ERRENTA JASOTZEN DUTENEN NORTASUN AGIRIAREN EDO PASAPORTEAREN FOTOKOPIA EKARRI BEHAR DUTE IZEN EMATE EGUNEAN.
* LAS PERSONAS QUE RECIBAN LA RENTA BÁSICA EN GETXO, EL DÍA DE LA INSCRIPCIÓN TIENEN QUE TRAER LA FOTOCOPIA DEL DNI O DEL PASAPORTE.

Antolatzailea:





Babesleak:



6UK



INDALECO OYAGUREN



ASIER MENTZAKA

Iraganez doa denbora* beti / AREETA, BIZKAIKO ZUBITIK

*** Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

UK 7

uribitakora > Ahate Itsusiaren istorioa



2009ko urria, Gobela (Getxo)

Testua: **Peio Arondo** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: Iparragirre habila zela

A(ha)te Itsusiak adierazi du
oihalean bere kezka,
eta eseki du ikus dezaten
guztiek bere protesta.
Etorri zen bezala
Eurite Unibertsala
gaude uholdez gainezka
eta Itsusiak ez du topatu
oraindik bere a(ha)te neska.

Zeramatela a(ha)te gaixoeak
ur(et)an flotatzen luzaro
ortzemugatik arka heldu zen
zazpi egun beranduago.
Noe heldu zenean
esan zuen trantzean
estaliz esku (e)ta aho:
-Sarri garbitu zuen hegoak
"A" gripeaz jota nago.

Aste horretan A(ha)te Itsusia
zisne izatera aldatu zen
Noek zisnea bere ontzian
sartzea erabaki zuen.
Beste a(ha)teek galdezka:
-... eta zure protesta?
Hau txarra da, esan duzu lehen!!
-Nik ez dut behar borroka jada,
be(g)itu zein ondo nagoen!

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal iezaguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....

Kalea/zenb..... Herria.....

e-mail..... Telefonoa.....

Urtero ☐ 20 euro ☐ 30 euro ☐ 50 euro
☐ beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito)
□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria

171 posta kutxa, 48991 Getxo

uk@aldizkaria.biz

tf. 94 491 13 37

euskarians > euskal kirolariak ezagutzeko aukera izango dute haurrek



Trukean aritzeko esamoldeak ere agertuko dira argazki bilduman.

Trukatzeko prest? Txikitan ia danok ibili gara kromo bilduma egiten; liburuxka ahalik eta lasterren betetzen, lagunakaz errepikatutakoak aldatzen e.a. Haurrek bertan agertzen diren pertsonajeak erreferentetzat hartzen dituztela kontuan hartuta, Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak euskal kirolarien argazki bilduma kaleratu barri du. Kontseiluko X. Mendigurenek adierazi duen legez, egitasmo honegaz *“eurentzat garrantzitsu diren horiek, puntako kirolariak izateaz gain euskaldunak ere badirela adierazi gura diegu”*. Bilduma honek 138 argazki ditu eta kirol ezberdinei buruzko informazioa jasotzen du. 6 eta 12 urteko haurrei zuzendua dago, eta ikastetxetan 100.000 album banatu dituzte jada, euskarazko ereduetan. Arduradunek adierazi duten moduan, albumaren bitartez euskara lagunakaz landuko dute haurrek: *“Euskaraz olgetan badira, alkarren arteko harremanak euskaraz sortuko dituzte”*. ○

euskal kulturaren jardunaldiak > erakusketa UK-ren eskutik



Getxoko herritar ezagunen argazki eta adierazpenak egongo dira ikusgai.

Udagoienagaz batera badatoz Getxoko Euskal Kulturaren Jardunaldiak, betiko lez hamaika ekimen eta proposamenegaz. Aurten ere UK aldizkaritik gure ekarpena egin gura izan dugu, eta horregatik azaroaren 25etik abenduaren 2ra arte “Erretratuak” erakusketa antolatu dugu Alday Patronatuan, Karitate kaleko 1. zenbakian. Bertan azken urteetan UK-ko atal horretan agertu diren getxoztar ezagun eta esanguratsu batzuen argazki eta adierazpenak ikusi ahal izango dituzu. Gainera, 25ean bertan 19:30etik aurrera, “Getxo akordaten naz” dokumentala proiektatuko da, azpтитuluakaz, aurretik ikusi ez dutenentzako ezinbesteko hitzordua. Egunari txapela jartzeko luntx goxo-goxoa ere antolatu dugu, beraz ez daukazu aitzakiarik, 25ean egongo gara! ○

saiazgetaria

HOTELA

Roke Deuna 25

20808 Getaria

Gipuzkoa

...hamia

...lehengo garaiak...

...itsasoa

www.saiaszgetaria.com / info@saiaszgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

UK9

[talaia]

eh sona > 12 urte bete ditu Bartzelonako euskal musikaren jaialdiak



Abenduaren 5ean amaituko da jaialdia.

Katalunian euskal musikagaz gozatzeko aukera izango dute abenduaren 5a arte. Izan ere, Euskal Herria Sona jaialdiak 12 urte beteko ditu aurten, eta aurreko urteetako biderei jarraituz musika izango da batik bat jaialdiaren ardatza. Euskal musikari ezagunen emanaldiez gain proposamen barriak ere eroango dituzte, euskal musikak azken urteetan sortu dituen lanak ezagutarazteko asmoz. Tamainazko musikariak egongo dira: Iñaki Plaza eta Jon Garmendia, Hegokoak, Rafa Rueda, Maddi Oihenart, Aristizabal eta Barandiaran, Korrontzi, Ruper Ordorika... Urriaren 30ean dantza ikastaro bategaz emon zioten hasiera EH Sonari. Hurrengo ikastaroak azaroaren 14an eta 28an izango dira, txalaparta eta kantu eskolak, hain zuzen. Azaroaren 21ean Bartzelonako tabernetatik triki-poteoa egingo dute, eta Gatiburen kontzertuak emongo dio amaiera jaialdiari abenduaren 5ean. ○

Egitaraua: www.ehsona.com

“hemendik” sariak > eskualdeko udal eta elkarteak saritu dituzte



Sarituak eta sariak emon zituztenak, Urdulizen.

“Ondo egindako beharra” saritu zuten urriaren 16an Urdulizko Kultur Etxean, Deiak Uribe Kostako II Hemendik Sariak emon zituen-eta. Sari hauen bitartez azken urtean udal, elkarte zein herritarrek arlo ezberdinetan egin duten beharra saritu gura izan dute. Zazpi arlo hartu zituzten kontuan antolatzaileek: gizarte ekintzaren saria Getxoko Egizu euskara elkartearentzat izan zen, kulturean Leioako Umore Azokak jaso zuen saria, kirolean Barrika Piragua Taldeak, sustapen ekonomikoan Ford Mintegui enpresak, Berrikuntza saria Sopolako Kurtzio Kultur Etxe barriarentzat, Omenaldi saria Diego Izquierdok jaso zuen Urdulizko eskubalo taldearen izenean eta turismokoa Berangoko S. Otxandategi dantza taldearentzat izan zen. Zorionak danori! ○

cianoplan
global printers

Villa de Plentzia 6. zbk
Antigua Golf - Getxo
Tlf. 944 649 087
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

Reprografía

- Imprimatze eta plano kopiak •
- Kartelak kolorez eta z/b •
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
- Fotokopiak kolorez eta z/b •
- Era desberdinetako koadernaketak •
- Plastifikazioak •
- Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak •
- enmarkaketak •



10 **UK**

[eretratua]



“Denok daukagu ‘harrikada’ bera; berdin du punk, rock, pop edo heavy zaleak izan”

Ivan Corcuera > *Grabasonic* musika zentroko sortzailea.

Egun batetik bestera gertatu zen dana, orain dela zazpi bat urte. Garai hartan, biologiako doktore tesia prestatzen zebilen Ivan Corcuera leioztarra: *“Egun batean, ohetik jaikitzean, pentsatu nuen: ‘hau ez da niretzako, nire bizitza musika da’. Dena pikutara bidali eta proiektua diseinatzan hasi nintzen”*. Horrela sortu zuen Grabasonic Musika Lantzeko Zentro Integrala: *“Gurasok babes morala eman zidaten; gainontzeko guztia neuk bilatu behar izan nuen. Hasiera gogorra izan zen, 24 urte nituen eta ume mokoa nintzen”*. Askok dira zazpi urte hauetan Berangoko Sabino Arana kaleko lokaletatik pasa diren musika talde zein zaleak, euren lehen maketa grabatzeko edo gitarra jotzen ikasteko gogoagaz: *“Nire asmoa musikarentzako eta horren inguruan sortzen den giroarentzako gunea sortzea zen; azken batean, denok daukagu ‘harrikada’ bera, berdin dio punk, rock, pop edo heavy zaleak izan. Denok gura dugu musikarentzako gune bat”*. Fakturak ordaindu eta bulegoko beharra egiteaz gain, estudio barruan egoten da Corcuera: *“Grabaketa politikak daudenean gustura sentitzen naiz; zoritxarrez, gehienetan ez da horrela izaten”*. 15 urteagaz hasi zen gitarragaz; gaur egun, bateria eta baxua ere jotzen ditu. Valhalla eta El Reno Renardo taldeetan jo du orain arte; baina, lagunon batek eskatuz gero, laguntzeko prest agertzen da beti: *“Talderen batek eurekatz jotzeko eskatzen didanean, irribarreka ahoan jarri eta eszenatokira igotzen naiz”*. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

UK 11

Tabernak, ikastetxeak, antzokia, merkatua, kasinoa, Kultur Etxea eta beste hainbat txoko euskal kulturaz beteko dira azaroaren 20tik abenduaren 3a arte XI. Euskal Kulturaren Jardunaldiakaz

Urtero lez, abenduaren 3a Euskararen Eguna dela aitzakiatzat harturik, aste biz luzatuko diren Euskal Kulturaren Jardunaldiak antolatu ditu Udal Euskara Zerbitzuak herriko eragileen laguntzagaz; UK-kook gure harri-koxkorra jarriko dugu hilaren 25ean.

Xabierko Frantzisko eguna izateaz gain, 1949. urtetik, abenduaren 3a Euskararen Nazioarteko Eguna ere bada. Eusko Ikaskuntzak izendatu zuen, urtero euskara ardatz duten ospakizunez bete-tzen dugun egun hori. Getxon, aste biz luzatuko dira gure hizkuntza eta kultura-ri eskainitako ospakizunak. Aurten, azaroaren 20tik abenduaren 3a arte izango dira XI. Euskal Kulturaren Jardunaldiak. Gustu eta adin guztientzako egitaraua prestatu dute, herriko kale, taberna, azoka, antzoki zein ikastetxeetan gozatu ahal izango dena.

Hilaren 20an VIII. Nazioarteko Trikitixa Jaialdiagaz hasiko dira Jardunaldiak. Italia, Quebec, Okzitania eta Euskal Herri-ko etorritako trikitilariak izango dira entzungai arrastiko 20:00etatik aurrera Andres Isasi Musika Eskolan (sarrerak aldeztu aurretik eros daitezke Algortako Kultur Etxean edo BBKren orotarako kutxazainetan). Hurrengo egunean, Lizasok eta Peñagari-kanok bertsoak botako dizkiete Algortako merkatuko (Torrene kalea) jakiei, 12:00etan. 21ean, arrastiko 19:00etan, udal-erriko gazteen talentua saritzen duen *Izarren distira* gala egingo



Joan den urteko Izarren distira gala

dute bigarren urtez, Andres Isasi Musika Eskolan. SENDIko lagunak, *Kamishibai* kulturarteko tailerra antolatu dute 8-10 urte bitarteko umeentzako eta euren gurasoentzako, 23an arrastiko 18:00etan Zubilleta Ikastetxeko liburutegian.

«Hilaren 25ean argazki-erakusketa aurkeztuko dugu UK-kook Alday Patronatuan»

Hilaren 25ean, 19:30ean, UK-koon txanda izango da. Alday Patronatura hurreratzen zareten guztiak, *Erretratuak* argazki-erakusketa barria eta orain bi urte aurkeztutako *Getxo, akordaten naz* dokumentala azpigituluakaz ikusteko aukera izango duzue.

Azaroaren 26an, Unai Elorriaga idazleak, *Londres kartoizkoa* da bere azken eleberriri buruz berba egingo du Villamonteko Kultur Etxean, arrastiko 20:00etan.

Antzerkiak bere tartetxoa izango du jardunaldietan. Alde batetik, Bapirukeren eskutik, *Ino, Ino, Ino... badator Bonbardino* antzezlanak ikusi ahal izango da 29an, goizez eta arrastiz Andres Isasin (sarrerak Kultur Etxean eta BBKn). Bestetik, Jon Urraza getxoztarrak, *Bestela ondo... ezta?* lan barria aurkeztuko du abenduaren 2an 20:00etan Algortako The Piper's tabernan.

Leku berean eta jardunaldiei amaiera biribila emateko, Euskararen Nazioarteko Egunean, *Trikikantu gosaria* (10:00) eta *Kantukafea* (17:30) egingo dute Getxoko euskaltegi-erakundeak. o

Abendurako amaituko

dituzte kale eta plazetako obra gehienak



40 obra baino gehiago dago herrian zehar

Kale, plaza zein errepideetan, oinez joan zein autobusa hartu, Getxo obrak beteta dagoela ikustea ez da zaila. Guztira, 40 obra baino gehiago dago herrian zehar. Alde batetik, zazpi parke (Errekagane, Txabarri-Zuazo, Maidagan, Iturgitxi e.a.) eta lau pasealeku (Areetako kaia, Arrigunaga eta Bostgarrena artekoa e.a.) atontzen ari dira. Bestalde, Villamonte eta Aiboan, sarbide mekanikoak eraikitzen hasi dira. Horrez gain, herriko zazpi kaletan egokitzapen lanak egiten ari dira. Zirkulazioari dago-kionez, biribilgune bat eta Zientzoetxe kaleko bidea berrantolatzea dira aldake-ta nagusiak. Gainera, kultur zein ekonomia jardueretarako erabiliko diren eraikin handien zenbait egitasmo daude martxan, Getxo Antzokia eta Zugatzar-

teko zentro teknologikoa, besteak beste. Tokiko Inbertsiorako Estatu Funtzagaz egiten ari diren lanak, abenduaren 31rako egongo dira amaituta; Udalaren diruagaz egiten ari direnak aldiz, 2010eko lehenengo sei hilabetean amaitu gura dituzte.

Imanol Landa Getxoko Alkatearen esanetan, *“amaituta diren obrei eta amaitzeaz dauden erakundeak, Getxoko azpiegitura hobeketa eta azpiegitura gehiago izango ditu hainbat eremutan: sozialean, kulturean, kirol eremuan, hirigintza eremuan eta eremu ekonomikoan”*; *“Getxo barria errealitate bihurtzen”* ari dela uste du alkateak. Gainera, eskerrak eman gura izan dizkie herritarrei, obrak sortu dituzte eragozpenen aurrean jarrera ulerkorra erakutsi dutelako. o

50.025 EURO GETXOTIK NIKARAGUARA

Costa Ricako mugatik hurbil dagoen Nikaraguako San Carlos hirira, 50.025 euroko diru laguntza bidaliko du Getxoko Udalak, Euskal Erakunde Kooperanteen Elkartearen bitartez. Diru horregaz, lurpeko eta azaleko uraren kutsadura murrizteko egiten ari diren saneamendu proiektuan lagundu eta 620 familia estolderia sistemari lotzea ahalbidetuko dute. Urak garbitzeko egitasmoak hamar urte daroaz martxan eta Getxoko Udalak 2001 urtetik laguntzen du horretan.

ANTENARIK EZ TALDEA IKASTETXEETAN WIFI-A JARTZEAREN AURKA

Kutsadura Elektromagnetikoaren Aurkako Taldea Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hamabi elkarte-ko osatuta dago; horien artean, Getxoko *Antenarik Ez* taldea dago. Urrian, ikastetxeetan wifi konexioa jartzearen aurkako ekimena aurkeztu zuten. Izan ere, euren ustez, mikrouhinak umeen osasunerako kaltegarriak izan daitezke eta, horregatik, *“prebentzioaren irizpidea”* erabili behar da ikastetxeetan. Europako Parlamentuak apirilean onartu zuen aipatutako *“prebentzio irizpidea”* aplikatzea; hori dela eta, *Antenarik Ez* elkarte-ko lagunek, Espainiako Gobernuari eta Eusko Jaurlaritzari eskatu zioten hori aintzat hartzea.

AUZOKIDEAK HERRIKO DENDETAN EROSTEKO PROIEKTUA ABIAN

Merkataritza Berdea izeneko proiektuagaz bat egin du Getxoko Udalak tokiko merkataritzaren salmentak hobetu eta sustatzeko. Auzokideak herriko dendetan erostera animatzeaz gain, proiektu honek, hiriko merkataritzaren jardueragaz lotutako berotegi-efektuen gas isuriak egiaztatu daitezkeen eran murriztu gura dira. Horretarako, hainbat tresna sortuko dituzte, besteak beste, *Merkataritza Berdea, Arduratsua eta Iraunkorraren eskuliburua* eta Merkataritza Berdearen web gunea.

Itxas Egurra Haizean Elkarte > antzinako itsasontziak berreskuratzen

“Gure helburua egurrezko itsasontzi zahar-
rak berreskuratzea da, ondarea gordetzea”



Itxas Egurra Haizean elkarte

Kultur ondarea bizirik mantentzea ez da lan erraza. Ondo dakite hori Itxas Egurra Haizean elkarte lagunek. Urtarrilean sortu zuten elkar-
tea, Kantauri Itsasoko historiaren ezinbesteko elementuak diren egu-
rrezko itsasontzi zaharrak berreskuratzeko asmoz. Algortako Portu
Zaharrean eta Arriluzen batzen dira asteburuetan, eguraldiak uzten
dienean behintzat; lan tresnak hartuta jo eta su jarduten dute.

—Nola sortu zenuten elkar-
tea? —Luis Mari Arriola “Piloto” santurtzia-
rraren ideia izan zen. 2005ean itsasontzi
zaharren eta maketen erakusketa egin
genuen Portugaleteko nautika-eskolan;
hori guztia desagertzeaz zegoela ikusita,
elkar-
tea sortzeko proposamena egin zi-
gun Pilotok. 2009ko urtarrilean elkar-
tea sortu genuen; gaur egun, 16 gizon-
emakume gaude eta bakoitzak bere itsa-
sontzia dauka.
—Zer egiten duzue? —Gure helburua Kantauri Itsasoko al-
txor diren egurrezko itsasontzi zaharrak

berreskuratzea da, gure itsas-kultur on-
darea bizirik mantentzea. Asteburuetan
Portu Zaharreko hondartzan batzen
gara eta txalupak konpontzen ditugu;
Arriluzen batel handiagoakaz ibiltzen
gara. Elkarte

30 urteotan ez da batelik egon Getxon.
Gainera, Usategi parke ondoan 1930.
urtean egindako traineru bat daukagu,
Josebito izenekoa. Getxoko lehenengo
itsasontzi motorduna izan zen.
—Euskal Herriko beste elkar-
te batzue-
kaz harremanetan zaudete, ezta?
—Bai, Xokoa, Bermeo, Pasaia eta Lekei-
tioko elkar-
teakaz batera *Euskal Ba-
teleroak* sortu dugu. Ekainean Xokoan
egon ginen; harrituta gelditu ziren
gugaz. Elkarte gazteena ginen eta itsa-
sontzi txikiak genituen, baina oso
ondo moldatu ginen uretan.

«Portu Zaharreko itsasontzi
txikiak beste asko baino
hobeto mantendu dira»

—Zelako itsasontziak ditugu Getxon?
— Portu Zaharreko eta inguruko lagu-
nek fabriketan egiten zuten behar eta
itsasontzia, asteburuetan edo udan
arrantzan joateko erabiltzen zuten; ho-
rregatik, Abran mugitu diren itsasontzi
txikiak beste zonaldeetakoak baino
hobeto mantendu dira. Orain bote txi-
kiak daude Portu Zaharrean, pertsona
bakarrak mugitu ahal izateko. Baina,
antzina, batel eta traineru handiak zeu-
den. Arrantzontzi moderno handiek,
egurrezko itsasontziak ordezkatu dituz-
te. Jendeak ez du horrenbeste lan eska-
tzen duen zerbait gura.
—Aurrera begira zer espero duzue?
— Lokal bat lortu gura dugu, gustura
behar egiteko. Ez dugu gehiegi behar,
materiala gordetzeko eta neguan egote-
ko etxola txikia baino ez. Jendea hurre-
ratzera animatu gura dugu; ez da ezer
eskatzen, gogo

Informazio gehiago:
itsasegurrahaizean@hotmail.com

Hezet

tasun auzoko jaiak

indartu guran, egitarau oparoa prestatu dute
hilaren 13, 14 eta 15erako



Mota guztietako txapelketak egongo dira Hezet

Ez dira nagusiak, ezta ezagunenak
ere; baina, urte hauetan guztietan, duin-
tasunez egin dute aurrera Algortako
Hezet

an, diana eta txistularien kalejira egingo
dute goizean goiz. Ondoren, nagusien-
tzako tiragoma eta igel lehiaketan eta
umeentzako marrazki lehiaketan parte
hartu ahal izango da. Bazkari herrikoia
eta gero, XIX. Fandango eta Arin Arin
Txapelketa, idi probak eta XVII. Au-
rreskulari Txapelketa izango dira. Gau-
ean, Mad Skins, Auskalo Non eta Na-
palm taldeek jarriko dute musika. Do-
mekan, XXXI. Lapikoko txapelketak
emango dio usaina auzoari. Sukalda-
tutakoa jan aurretik, San Martin crosa
egingo dute. Jaiei amaiera emateko, txo-
kolate jana eta txarri erretzea. ○

UDALAK ETA EHUK LANKIDETZA HITZARMENA

Euskal Herriko Unibertsitateak eta Getxoko
Udalak, *Leonardo Da Vinci* beka deialdiari
buruzko informazioa zabaltzeko hitzarmena
sinatu dute. Lehen esperientzia profesiona-
la Europako enpresetan burutu gura duten
gazte tituluatuz barrei zuzenduta daude beka
horiek eta aurtun 45 emango dira. Destino-
ko herrialdeak Alemania, Frantzia, Italia,
Portugal, Erresuma Batua eta Txekiar
Errepublikak dira. Izena emateko epea
abenduaren 4a arte egongo da zabalik;
Bizkaiko Kanpuseko Enplegu Zentroan edo
www.ehu.es/enplegugunea web orriaren
bitartez egin daiteke.

MUS TXAPELKETAK ZAPATURO ERROMON

Erromoko Branka Kultur Elkarteak mus
txapelketak antolatuko ditu zapaturo ekaina
arte. Orain dela urte batzuk izandako
ohitura berreskuratu gura dute
txapelketakaz Erromokoek. Parte hartu gura
duenak, Branka tabernan arrastiko 16:00
eta 16:30 bitartean izena eman eta 12 euro
ordaindu beharkodute. Irabazleentzat sari
gozoak daude, txulekak, legatzak eta ardo
botilak, besteak beste.

KOMIKI ERAKUSKETAK AZOKA HASI AURRETIK

Hilaren 27an hasiko da Areetako Geltokia
eta Santa Eugenia plazetan ikusgai egongo
den VIII. Komiki eta Manga Azoka. Motore-
ak berotzen joateko, sei komiki erakusketa
jarriko dituzte Getxoko erakusta aretoetan
eta tabernetan 23tik aurrera. Algortako era-
kusta aretoan Laura F. Martin eta Joanna
Nietoren lanak egongo dira; Erromoko era-
kusta aretoan, Roberto Gonzalezenak; Jai
Alai Kafetegian (Erromo), Beatriz Gonzale-
zenak; Areetako Glass kafetegian Guiller-
gerenak; La Reja tabernan (Areetan) Mikel
Baoren *Asuntos Pendientes* lana ikusi ahal
izango da eta Bizkaiko Zubian (Areetan),
Komiki Azokaren kartel bilduma eta El
Balanzin atzera begirako erakusketa.

lagusana

libros y letra pequeña

Basagoiti etorbidea 59

(Tellagorri plaza)

48991 ALGORTA

Tf. 94 491 14 12

lagusana@lagusana.net

Patxi Bengoa > margolari eta eskultorea

“Beti gura izan dut margotu, baina baserriko beharraz, gerragaz eta goseagaz ezinezkoa zen”

58 urtegazi hasi zen Patxi Bengoa baserritar leioztarra koadroak margotzen. Zaletasun hori betidanik izan du, baina jubilatuta arte ez du denborarik izan horretan jarduteko. 1986. urtetik, 50 herri baino gehiagotan egin ditu erakusketak.

Sega eta igitaia laga eta pintzela hartu zuen Patxi Bengoak 1986. urtean. Txikitatik gustatu izan zaio margotzea Loiuko Elotxelerri baserrian hazitako leioztarrari, baina beharrak ez zion denborarik uzten horretarako: “Beti eduki dut buruan pintatzea. Gura bai, baina ezin”.

Baserriko beharrak oso gogorrek direnez, ezinezkoa egin zitzaion Bengoari pintzela aurretik hartzea. “Lehenago hasi behar izan nintzela esaten didate askok, baina nola hasiko nintzen arinago?” Gerran eta gose garaietan pintzela hartzea bizioa zen berarentzat, ez zuen burua horrelakoetan pentsatzeko. Baina 58 urtegi jubilatuta ostean, batetik bestera ibili da leioztarra: “denbora aprobetxatu baino ez dut egin”. 100 margolan baino gehiago egin ditu azken 21 urte hauetan, eta 50 herritan baino gehiagotan antolatu ditu erakusketak, azkena urrian Berangoko Kultur Etxean. “Gela handi bat



Bengoa Berangoko Kultur Etxean, bere koadroen erakusketa batean

daukat etxean. Musika ipintzen dut eta aurrera”.

Baserriak eta paisaiak margotzen ditu batik bat Bengoak, bai Euskal Herrikoak bai kanpoko herrietakoak ere (Frias edo Medina de Pomar kasu). “Lehen bertaraino joaten nintzen, maleta eta kaballeta-gaz Donostiara, Orozkora, Oñatira... Zirimiria-gaz izoztuta ibili naiz”. Orain argazkiak moldatzen da, baina lehen

ere bertatik bertara ibiltzen zenean ere gustura aritzen zen: “Pozik joan behar da, ez ernegata”.

Eskulturan ere urratsak eman ditu, baina ez du eskolarik jaso, “autodidakta izan naiz”. Autobiografia prestatzen ere badabil leioztarra, bere bizitzaren nondik norakoa kontatzeko helburuagaz: “Nire bizimodu gogorra izan denez, hurrengoek irakurtzeko, jakiteko zelan izan diren kontuak”. ○

Lur Barriak saria Leioan

6.000 euroko sari nagusia **EBA enpresak** jaso du. Eskualdeko beste hiru saridun ere egon dira.



Mendibile jauregian batu ziren saridunak eta euren herrietako alkateak.

Leioan banatu dira 2009. urteko “Lur Barriak” sariak eta Leioan bertan gelditu da aurtengo sari nagusia. Bizkaiko hainbat eskualdetako Behargintzek antolatua, urriaren 23an Mendibile Jauregian ospatu zen sari banaketa. Azkenean, Egurrontzi Berrikuntza Artisautza (EBA) enpresa leioztarrak eskuratu zuen 6.000 euroko sari nagusia. Negozio honek egurrez egindako ontzi barrizailleak egiten ditu eta Eduardo Sainz Lobatok jaso zuen saria.

Mungialde, Txorierri, Bermealde, Gernikalde, Getxo, Leioa eta Erandioko Behargintzek parte hartu zuten sarietan, eta bakoitzak 2.500 euroko sari bana emon zion bere herri edo eskualdeko

enpresa bakoitzari. Erandion Asador El Rincon jatetxeak eskuratu zuen lehenengo saria. Getxoren kasuan “Terapias manuales Karmele Quintana” izan zen irabazlea eta Leioan, barriz, Kul by Kul enpresak lortu zituen 2.500 euroak. Enara Villarejo eta Maialen Olabarrietak jaso zuten azken sari hau, bitxi diseinuak egiten dituen negozio honen izenean.

Sarien helburu nagusia “*kultura ekin-tzailea sustatzea*” izan da, antolatzaileen hitzetan. Parte hartzeko enpresek Jardu-era Ekonomikoen Zergan (JEZ) izena emon behar izan dute 2008. urteko ekainetik aurrera, eta Behargintzaren tutoretzaren laguntza izan dute. ○

BIDEGORRI BATEK ARTATZA ETA PINOSOLO AUZOAK LOTUKO DITU

Leioako bidegorri sareak 700 metro gehiago izango ditu Artatza eta Pinosolo auzoak lotzen dituztenean. Bizkaiko Foru Aldundiak hartuko du bere gain proiektuaren aurrekontua (400.000 euro) eta Eneko Arruebarrena alkateak adierazi duen legez, 2010. urtean Getxora bidegorritik joatea posible izango da. Epe luzera, udalak metro geltokia eta unibertsitatea bidegorriagaz lotu gura du. Bestalde, herriko nagusiek gimnasia egin dezaten, Leioako udalak hainbat aparatu jartzea erabaki du, Elexalde, Pinosolo eta Udondoko bidegorriaren alloan. Foru aldundiak hartuko du bere gain proiektu honen aurrekontua (55.200 euro).

EUSKALTZAINDIAGAZ HITZARMEN BARRIA

Toponimiari buruzko lan bat gauzatzea izango da Leioako Udalak eta Euskaltzaindiak sinatu duten hitzarmenaren lehenengo ekintza. Orain dela urte batzuk udalak ateratako bekaren jarraipena izango da hitzarmen hau, eta herriko toponimia berreskuratu eta normalizatzea izango du helburu. Azterketen emaitzak formatu desberdinetan ateratzea aurreikusi dute: lehenengo liburuxka bat argitaratuko dute eta baliteke horren ostean liburu osoagoa edo CD bat kaleratzea.

BABES OFIZIALEKO 400 ETXEBIZITZA LEIOANDIN

Eusko Jaurlaritzak Babes Ofizialeko 400 etxebizitza eraikiko ditu Leioandin, Leioako udaletik Sarrienara doan aldaparen eskuinaldeko aldean (Las Irlandesas ikastetxearen alloan, Elexalde etorbidean). Udalak aurreko Eusko Jaurlaritzagaz sinatutako akordioaren arabera, 400 BOE eraikiko dituzte, 4 bloketan. Horietatik 100 bat gizarte alokairuzkoak izango dira. Obrak 2010. urte inguruan hastea aurreikusi dute.

udondo

taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2

Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK

ERA GUZTIETAKO
ERROTULUAK eta
INPRESIO DIGITALAK
egiten ditugu

e-mail: hirutab@euskalnet.net

Iparragirre etorb. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tf. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

BETIKO

IKASTOLA

— 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.

— Ingelesa 4 urtetik aurrera.

— Frantsesa DBHn.

— Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), askaria.

— Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitara, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...

— Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94 464 23 64 / 94 464 33 07

e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

16UK

UK 17

Oscar Moreno eta Joseba Antxutegi > Erandioko Txirrindulari Elkarte

“Santiagora heltzeko erronka txirrindularientzat segurtasun handiagoa eskatzeko baliatu dugu”

10 urte igaro dira Erandioko Txirrindularitza Elkartekoek euren herria eta Santiago 24 ordutan lotu zutela. Abentura errepikatu zuten urriaren 10ean, urteurrenean. Azaroaren 22an, beste martxa bat antolatu dute Bilbora, segurtasun handiagoa eskatzeko helburu berdinagaz.

—Zelakoa izan da Santiagoko esperientzia?
—Esperientzia oso ona izan da, oso positiboa. Elkarteko jendearen arteko harremana estutzeko balio izan digu, gure arteko elkarbizitza oso intentsoa izan delako. Goizeko 11:00etan lotu ginen Erandion, eta Zorrotzara heldu orduko, taldetan banatu eta txandaka egin dugu ibilbide osoa. 30 bat pertsonak parte hartu dugu, 4-5 lagunetako taldetan.
—Gogorra izan da 650 kilometroak 24 ordutan egin behar izatea?
—Bai, bidea nahiko gaitza izan da. Txanda bakoitzean 3 ordu sartu ditu zikloturista talde bakoitzak, eta bidea ez da batere erraza. Kastillan bidea lauagoa da eta bertan denbora irabazi genuen, baina Galizia oso malkartsua da eta bideak oso txarrak dira, asfaltoa ez dago egoera onean. Guk Done Jakue bideko



Erandioko Txirrindulari Elkarteko kide batzuk, euren egoitzan

ibilbide frantziarra egin genuen, bere garaian modan zegoena zelako, eta gainera ondo seinaleztatua dagoelako. Dena den, parte hartu dugun gehienok 40 urtetik goragokoak izan gara.
—Eta zein helburugaz egin duzue martxa?
—Alde batetik, bizikletaren erabilera sustatu gura genuen, baina helburu nagusia txirrindularientzat errepidean segurtasuna handitzea aldarrikatzea zen. Erronka hau baliatu gura genuen gure

eskaerek oihartzun handiagoa izan zezaten. Bizikleta benetako garraibide alternatiboa bihurtu gura dugu.
—Urtean zehar honi lotuta beste ekimen batzuk antolatzen dituzue, ezta?
—Bai. Azaroaren 22an, adibidez, Erandio-Bilbo-Erandio martxa egingo dugu, “Errespetatu bizirik” lelopean. 10:30ean lotu gara Erandioko plazan, eta adin guztietako jendeak parte har dezake. Domekaro ere urteerak antolatzten ditugu. ○

Azaro kulturala Lutxanan

Plataforma Tirantek antolatua. Hil osoan zehar kontzertuak, ikastaroak, antzerkiak e.a. izango dira.



Plataforma Tiranteko kideak, “La 52” antzezlanean

Aspertzeko denborarik ez dugu izango Lutxanan hilabete honetan. Plataforma Tirante elkartek ekimen andana antolatu du aurrean, “Azaro kulturala” egitarauaren baitan. Asteburu zein lane-gunetan, Lutxanako eskolan izango dira ekitaldi guztiak.
Azaroko lehen asteburua kalejira, antzerki emanaldi eta dantza ikuskizunakaz igaro ostean, antzerkirako idazketatik tailerraren ikastaroa izango da azaroaren 9tik 12ra, Peru C. Sabanen eskutik. Asteburu horretan, “La Calvario”, Cristina Ortiz eta “Yin de Yan” antzerki taldeen emanaldiak izango dira. Musikari dagokionean, barikuan 22:00etan “El

proyecto Brundel-mosca” taldeak joko du eta zapatuan, jam sesioa izango dute eskoletan bertan.
Hileko hirugarren astean zehar mugimendu koreografiko tailerra izango da. Natxo Monterok 19:00etatik 21:00ak arte emongo ditu eskolak, lanegunetan. Asteburuan, bere aldetik, antzerkia eta musika izango ditugu barriro protagonista.
Amaitzeko, Ander Lipusek antzerki fisikoaren tailerra emongo du 23tik 25era. Asteburuan, antzerkia eta musikagaz gain, herri bazkaria eta laburmetraia emanaldia izango da. ○
Informazioa: www.plataformatirante.com

BERBOTS ELKARTEAREN MATERIAL ESKAINTZA

Orain dela gutxi arte Berbots Euskara elkartek Bordatxu gaztelekua kudeatu izan du. Kudeaketa horretarako elkartek hainbat material erabiltzen zuen (futbolina, ping-pong-a e.a.) baina egun, elkartaren biltegian gordeta dute. Material honi urteera emoteko asmoz, beste euskara elkarte bati uztea erabaki dute Berbotseko lagunek. Interesa edukiz gero, berbotserandio@telepolis.com helbidean elkarteagaz kontaktuan jarri.

UDALAK EZ DITU TASAK ETA ZERGAK IGOKO

Krisiaren testuingurua kontuan hartuta, Erandioko udalak hurrengo urteko tasak eta zergak ez igotzea aurreikusi du. Joseba Goikouria alkateak adierazi duenez, familiei ezin zaie “esfortzu extra eskatu” eta horregatik hartu dute aipatutako erabakia. Udaletik argi utzi dute igoera honek ez duela zerbitzuetan inolako kalterik ekarriko, baina zerbitzua handitzea ere ezinezkoa izango dela nabarmendu dute: “baliabide gutxiago izan arren, zerbitzu berdina kudeatzeko erronka hartu dugu”. Erabaki honek oraindino udalaren osoko bilkuraren baiezkotza jaso beharko du.

ERANDIO GOIKOAN OSASUN ETXE BARRIA ZABALDUKO DUTE

Erandio Goikoak osasun etxe barria izango du hurrengo asteetatik aurrera. Udaletxe zaharreko egoitza utzi eta eraikin kulturalako lokaletan zabalduko dute osasun etxea. 105 metroko lokalak hiru kontsulta, harrera, artxiboa eta komunak izango ditu. Eraikin kulturala eliza ondoan dago eta beheko solairuan, osasun etxe barriagaz batera, nagusien etxea eta udal haurtzaindegia egongo da. Bigarren solairuan tailer kulturala, nagusientzako gela eta erabilpen ugarietarako gela egongo dira. Auzoko elkartek hirugarren solairuan bildu ahal izango dira.

Zure publizitatearen haren
Zure publizitatearen haren
Zure publizitatearen haren

Tf. 94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

Basolanak

• Zuhaitz landaketa
• Inausketak
• Ibierak
• Garbiketak
• Tratamendu fitosanitarioak

Lorategi zainketa
DEITU!

Tf. 94 467 17 13
FAX 94 467 42 41
ERANDIO (Bizkaia)
Sakelakoa
Asier: 629 411 838
e-posta: basolanak@terra.es

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?

Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak

ARLAN
ASCENSORES

Arazoei agur... **Tf. 902 54 08 54**
www.arlan.biz

**SOPESEX ETA GAZTE
BULEGOA, KURTZION
ORDUTEGI BARRIAGAZ**

Sopelako Kurtzio Kultur Etxe barria apurka-
apurka hainbat zerbitzu beregain hartzen hasi
da, oraindino irekiera ofiziala egin ez badu
ere. Sopesex sexologi aholkularitza
zerbitzuak, esaterako, kultur etxe zaharreko
lehen solairua laga eta Kurtzion izango du
egoitza barria. Ordutegia ere aldatu dute:
martitzenetan 18:00etatik 20:00etara egongo
da zabalik. Dena den, lotsatiek kontsultak e-
posta bidez ere egin ditzakete,
sopesex@sopelana.com helbidean. Gazte
bulegoak, bere aldetik, Kurtzion ere izango
du egoitza barria.

**ITZARTUK AUTODEFENTSA
IKASTAROA ANTOLATU DU**

Azaroaren 25ean Emakumeenganako
Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna
dela kontuan hartuta, Itzartu emakume
elkarteak autodefentsa ikastaroa antolatu du,
azaroaren 16tik 20ra. Saioak udaletxeko
erakusketa areto zaharrean izango dira, eta
aurretik Itzarturen lokalean (Doctor Landa
kalea 3) izena emotea beharrezkoa da.
Plazak betetzen direnean amaituko da izena
emoteko epea.

**INTERNET DEBALDE UDAL
LIBURUTEGIAN**

Urriaren 22tik aurrera Sopelako udal
liburutegian internetera guztiz doan sartzeko
aukera izango dute erabiltzaileek.
Liburutegiak ordenagailu gunea izango du
horretarako eta erabileria epea ordubetekoa
izango da gehienez. Dena den, web
batzuentarako sarbidea mugatua egongo da.
Udaletik adierazi duten legez, debekatua
egongo da “*jolas, sexu-eduki esplizitu, delitu-
ekintzak bultzatzen dituzten, edozein arlotan
indarrean dagoen lege-araudia betetzen ez
duten, izaera xenofoboa edo arrazista duten
eta indarkeria bultzatzen duten*” orrialdeetara
sartzea.

Ekogunek ateak zabaldu
ditu Sopelan; Udaletako **garapen jasangarria**
bultzatzea izango da bere helburua



Bizimeta kuadeatzeaz ere arduratzen da Ekogune

Tokiko Agenda 21eko bulego barria
zabaldu du Uribe Kostako Mankomu-
nitateak Sopelako euren egoitzan (Men-
dibile kalea 2-4). Ekogunek Manko-
munitatea osatzen duen udal bakoitzari
babes zuzena eta neurrikoa emongo dio
Tokiko Agendako Ekintza Plana mar-
txan jar dezan.

Egoitza barri honegaz Udalek euren
artean arlo honi buruzko ideiak partekat-
zeko gunea izango dute, euren arteko
koordinazioa handituz. Ekogunetik adie-
razi duten legez, “*helburua udalak jasan-*

*garri egiteaz gain, herritarren partaidetza
bultzatzea eta informazioa helaraztea da*”.
Udalez gain, beraz, herritarrek ere ingu-
rumenagaz lotuta dagoen informazioa
eskatzeko aukera izango dute bertan.

Era berean, Ekogunetik hainbat
kontzientziazio eta hezitze kanpaina
jarri dituzte abian, honako gaiak jorra-
tuz: hondakinak, energia, biodibertsit-
atea, ura, kutsatutako lurrak, airearen
kalitatea e.a. “Bizimeta” bizikleten zer-
bitzua ere bulego barri honetatik kude-
atzen dute. ○

Koldo Nuñez-Betelu > geologoa

“Uribe Kostan parke geologikoa sortuz
gero ospe mundiala hartuko luke”



Nuñez-Betelu Sopelako kultur etxe barrian

Aitxu! euskara taldeak antolatua,
Koldo Nuñez-Betelu geologo donostia-
rrak berbaldia eskaini zuen urriaren
23an Sopelako Kultur Etxean. 25ean,
kostaldea bertatik bertara ezagutzeko,
urteera egin zuten eskualdetik.
—Zergatik da horren berezia Uribe
Kosta geologiko eta paleontologikoki?
—Uribe Kosta eremu oso txikia izanda
ere mota askotako altxorak biltzen
dituelako, oso ikusgarriak gehienak.
Hemen ematen diren failak, tolesak eta
egitura geologikoak bereziak dira.
Algortako portu zaharretik Armin-
tzaraino beste leku batzuetan topatzen
ez diren gauzak aurki daitezke. Paleon-
tologikoki ere ikusgarria da, fosil ugari
daude, batez ere mikroskopikoak.
Zientzialarientzat leku oso aproposa da
ikerketak egiteko. Horrelako eremu
txikian, nik ezagutu dudak lurrik abe-
ratsena da, bai Euskal Herri barruan
bai kanpoan.
—Eta zer da zehazki eskualdeko kos-

taldean aurki dezakeguna?
—Geruzaz geruzako estratifikazio eza-
gunaz haratago, Uribe Kosta oso abera-
tsa da eta gauza ezberdin ugari aurki
daitezke. Gorlizen duna fosilak daude,
oso ikusgarri eta politak, benetan didak-
tikoak. Arrezife tropikalen fosilak ere
Gorlizko gaztelutxoaren inguruan dau-
de, orain dela 100 bat milio urtekoak.
Dinosauruen oinatz fosilak topatu dira
Billano lurmuturrean, ur azpiko sumen-
diak ere badaude e.a.

**«Uribe Kostan arrezifeen
fosilak, ur azpiko
sumendiak e.a. daude»**
—“Altxor” hauek behar bezala babes-
tuak daudela uste duzu?
—Askoz gehiago babestu beharko lira-
teke. Uribe Kosta leku aproposa da
parke geologiko bat sortzeko, hemen
dagoena benetan harrigarria delako.
Seguru nago honek ospe mundiala
eduki zezakeela. ○



EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

**Ingelesa, Frantsesa
eta Alemana**

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide
pinturak



RIPOLIN
BONDÉX
DYRUP

Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturriberia 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

**ANDER
DEVNA**
IKASTOLA

- Hezkuntza integrala
urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta banakuntza

Gatzarrine s.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email: sopela@ikastola.net

ESKULAN TAILERRA
NAGUSIEN ETXEAN

Berangoko nagusiek eskulanetan trebatzeko aukera izango dute urtariletik aurrera. Nagusien Etxeak sei hilabeteko ikastaroa antolatu du, eta izen emotea azaroaren 24tik 27ra izango da, Sabino Arana kaleko egoitzan bertan. Herrian errolatuta dauden herritarrek 30 euro ordaindu beharko dute, eta gainontzekoek 60. Gainera, azaroaren 19an energia birziklatuen tailerra antolatu dute Nagusien Etxean, debalde. Karabiazpi elkarteak ere, Udalaren laguntzagaz, herri bazkaria antolatu du azaroaren 14an Gatikako jatetxe batean. 18 euro balioko duen bazkarian Berangoko edozein nagusik emon dezake izena. On egin!

FERNANDO ANSOLEAGAK
DERIOKO ANTZERKI
EMANALDIA ZUZENDU DU

Derio Bizkaiko Batzar Nagusietan sartu zeneko 320. urteurrena ospatzeko, antzerki emanaldia antolatu zuten bertako auzokideek. Antzerki taldea Fernando Ansoleaga berangoztarrak zuzendu zuen, eta ehun auzokide baino gehiagok parte hartu zuten urriaren 24ko emanaldietan. Antolatzaileek adierazi duten legez, bi saioetako gonbidapen guztiak agortu ziren (1.000 pertsona baino gehiago) eta balorazio oso positiboa egin dute. Ansoleaga pozik agertu da antzerki emanaldiakaz: *“ekainean hasi ginen entsaiatzen eta ilusioagaz egin dugunez ondo urten da”*.



JOKIN GARIATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI
Angeruaeren etorb. 4B
(sarrera, Jota Mendia) T: 400 01 87
48990 GETXO



AIXERROTA BHI

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK INASTERO GELA (A ETA D EREDUAK)



INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

XXVII. Ibilaldi neurtua

antolatu du Sei Herri Kultur Elkarteak azaroaren 15ean. Mendia, herri-bazkaria eta giro jatorra!



Informazio gehiago: ibilaldineurtuaseiherri.blogspot.com

Udazken aldean urtero-urtero Berangon izaten dugun hitzordua da Ibilaldi Neurtua. Sei Herri Kultur Elkarteak antolatzen duen ekimen eza-gun honek, eskualde osoko dozenaka lagun batzen ditu. Goizeko 08:15ean emongo zaio hasiera egunari, nagusien izen emoteagaz. 09:00etan txikien txanda izango da; izan ere, urtero legez ibilbide bi zehaztu dituzte antolatzaileek: txikiek 8 km egin beharko dituzte eta nagusiek, euren aldetik, 14.

Ibilbidea bikoteka egin beharko dute partehartzaileek eta Berangoko muge-

tatik igaroko da. 3 kontrol egongo dira bidean zehar, eta hamaiketako hartze-ko atsedena egingo da. Amaitutakoan, Javi Martinez algortarrak egin duen banderina jasoko dute martxistek, eta tabernetatik poteoa egin ostean, herri bazkaria egongo da pilotalekuan.

Bazkalostean txikienek pelikula bat ikusteko aukera izango dute, sari bana-ketaren aurretik. Sei Herritik herriko dendari eta lantegien laguntza eskertu gura izan dute, *“eurak barik ezinezkoa izango litzateke-eta egun hau aurrera eroate”*. ○

Diana Plaza > Astondopunta Elkarte

“Bistak ikusteko eskubidea gura dugu; hondartza guztiona da”



Diana Plaza, Astondopunta elkarte presidentea

2009ko urtarrilean sortu zen Astondopunta Elkarte. Gorlizko Udalak 2007an onartu zuen Ingurugiro Ordernantzan ez zen hondartza berba inondik agertzen; horregaz kezkatuta, hondartza eta bertako ingurune naturala defendatzeko asmoz, biltzen hasi ziren Astondopuntako lagunak. Diana Plaza elkarte presidentea, hondartzan egin denari eta egingo denari buruz berba egin digu.

—Orain gutxi Hondartzape Erretegiko lagunek proposamen barria aurkeztu dute, zer deritzozue?

—Hasierako proiektuak, hondartzan dauden bost eraikinak eraitsi behar zirela esaten zuen, ez baitute Kosta Legea betetzen. Horietako hiru bota dituzte dagoeneko, jabeakaz akordio batera heldu baitziren. Beste biak ez zuten akordiorik lortu. Urrian, Hondartzape Erretegiko jabeak proiektu barria aurkeztu zuen, jatetxea oraingo kokaleku-

tik hurbil berreraikitzea eskatuz. Ez dugu bat ere egoki ikusten proiektu hori; muga bisuala suposatzeaz gain, hondartzak ezintasunak dituzten pertsonentzako duen sarbide bakarra oztopatzen du. Gainera, luxuzko jatetxe batek ez du hondartzako erabiltzaileek behar duten zerbitzua eskaintzen.

—Zer proposatzen duzue?

—Guk bistak ikusteko eskubidea aldarrikatzen dugu, hondartza guztiona da-

«Behar den zerbitzua eskaintzen duen ‘txiringito’ bategaz nahikoa da»

eta. Behar den zerbitzua eskaintzen duen “txiringito” bategaz nahikoa da.

—Hori alde batera utzita, zelan ikusi dituzue hondartzako lanak?

—Lanen helburua ondo ikusi dugu hasieratik, parkingak eta ibilgailu-zirkulazioa desagerraraztea. Hala ere, proiektua askoz txukunagoa izan zitekeen.

Informazio gehiago: www.astondopunta.org



TURQUESA

C/ Bidebarrieta n.º2 Junto a metro Las Arenas

94 657 69 17

WWW.NOVIAS.TURQUESA.COM



BASTARTENTA

URDULIZ

Teléfono: 948 761 128



Taberna Berri

Sarriko baso 4 - ALGORTA

TF. 94 430 64 93



TXIBERRI

edantokia

frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ

TF. 94 676 07 15

GENERO BORTIZKERIA
SALATZEKO EKIMENAK

Azaroaren 25ean Genero Bortizkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna izango da. Horri lotuta, hainbat ekintza antolatu dute Plentzian. Alde batetik, hilaren 24an, arrastiko 19:00etan, “40/2007 Lege Berria: berezitutako eta dibortziatutako pertsonen-tzako alarguntasun pentsioak” izeneko hitzal-dia emango du Isabel Allende abokatuak Goñi Portalen. Bestalde, “Mito tailerra, nork bere burua ikusteko ispilua” antolatu dute 27 eta 28rako. Gainera, Araldi Kultur Elkarte-ko lagunek, zine foruma egingo dute hilaren 23an, arrastiko 19:00etan Kultur Etxean.

EUSKARA SUSTATZEKO
GUTUNONTZIAK

Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak, gutunontziak ipini ditu euren bulegoetan eta udaletxe eta kultur etxeetan, euskararen normalizazioan lagunduko duten herritarren proposamenak jasotzeko. Komunikazio eta ezagutza falta oztopo ez izateko ipini dituzte gutunontziok. Horrela, “euskararen aldeko urrats irmoagoak” eman gura dituzte Mankomunitateko lagunek.

TELP TAILERRA LEMOIZEN

TELP (Taller d’ Espai Lingüistic Personal) tailerra egingo dute Armintzako Kultur Etxean hilaren 14an eta 21ean goizeko 10:30etik 14:00etara. Horretan, gure hizkuntza erabiltzean sortzen zaizkigun zalantzak eta beldurrak landu eta horiei aurre egiteko bideak proposatuko dituzte.

URDULIZ

Enplegu eta prestakuntza programa abian da



Historiako langabezi tasa altuenetakoa izan da Urdulizen 2009ko hirugarren hiruhilekoan

2009ko hirugarren hiruhilekoan, Urdulizek bere historiako langabezi tasa altu- enetarikoa izan zuen: %8,58. Krisiaren ondorio latz horri aurre egiteko, Udalak *Enplegua eta Prestakuntza Urduliz 2009* egitasmoa abiatu du. Horregaz, langa- bezian dauden gizon-emakumeen presta- kuntza hobetu gura dute.

Programa diseinatzerako orduan, lan- gabetuen profila aztertu dute: adina, sexua e.a.. Formakuntza teorikoaz gain, Udalak sei hilabeteko kontratua egingo

die parte hartzen dutenei, curriculum- a hobetzen lagunduko dien lan-esperien- tzia lor dezaten. Programan izena ema- teko epea, hilaren 30a arte egongo da zabalik eta udaletxean eta Uribe Kos- tako Behargintzan egin ahal izango da. 2007a baino lehen Urdulizen erroldata- ta dagoen 18 urtetik gorako edozein langabetuk parte har dezake; aukeraketa baremo sozio-ekonomikoen arabera burutuko dute. ○

Informazio gehiago: www.urduliz.net

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

KLIMATIZAZIOA
INGENIARITZA
INSTALAZIOA
MANTENIMENDUA
Otxandategi tar Simon 114
48640 Berango, Bizkaia
Tf. 94 668 15 51
Faxa. 94 66829 92
email: vasa@vasa.biz

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

BERANGO

► **Hiru dimentsioko collage-a, berniz tantaketagaz.** Jose Miguel Juezen lanak. Berangoetan, azaroaren 15era arte.
► **Ana Maria Martin Diezen oleoak.** Berangoetan, azaroaren 16tik 29ra.

LEIOA

► **Daniel Tamayoren lanak.** Abenduaren 6ra arte, Kultur Leioan.

MUSIKA

LEIOA

► **Wim Mertens belgiarra.** XX. musika denboraldiaren barruan. Azaroaren 13an, 21:00etan, Auditoriumean. 15 euro.
► **Jimmy Arrabit Trio.** Azaroaren 20an, 22:00etan, Ambigun. 6 euro.

ERADIO

► **DJ Harriet.** Azaroaren 21ean, 22:00etatik aurrera, Lutxanako eskoletan.

ANTZERKIA

GETXO

► **Haur antzerkia.** Teatro Mutante taldearen “Munstroak akatu” lana. Azaroaren 15ean, 18:00etan, Andres Isasi Musika eskolan. Sarrera, 4 euro.

LEIOA

► **Antzerki musikala.** “Crea y Recrea” lana, Sax O’Fon taldearen eskutik. Azaroaren 15ean, 12:00etan, Auditoriumean. 4 eurotan.
► **Umeentzako antzerkia.** Cordula Nossek talde austriarraren “La Robe” emanaldia. Azaroaren 15ean, 12:00etan eta 18:30ean. Sarrera: 3 euro.

Riccardo Tesi italiarrak ere emanaldia eskainiko du.

► **Jaialdia**
Mundu osoko trikitixa doinuak, Getxon
Datorren azaroaren 20an VIII. Nazioarteko Trikitixa Jaialdia ospatuko da Getxon, Areetako Andres Isasi musika eskolan. Arrastiko 20:00etatik aurrera, mundu osotik etorritako musikari- en emanaldiagaz gozatzeko aukera izango dugu. Italia, Okzitania eta Quebec-eko musikariez gain, Euskal Herriko trikitilariak ere izango dira, estilo oso ezberdinetakoak gainera: Laja eta Poxpi, Bunpada sound, Herrijokak eta Esne zopak proiektua. Sarrerak azaroaren 10etik aurrera jarriko dira salgai, 6 eurotan. Algortako Kultur Etxean, 944310310 eta 944914080 telefonoetan edo BBK-ko kutxazain edo web orrian eskuratu ahal izango dira.

• **Non:** Andres Isasi musika eskola • **Noiz:** Azaroaren 20a, barikua.

ERADIO

► **”Voces en el umbral”.** Nexo teatroren lana. Azaroaren 14an, Josu Murueta kultur aretoan, 19:30ean. 2 euroren truke.
► **”Los jóvenes no saben lo que es llorar ni pasarse el día corriendo”.** Elena La Dolorosa eta David Quincocesen emanaldia. Azaroaren 22an, 19:00etan, Lutxanan. Plataforma Tirantek antolatua.

URDULIZ

► **”Graffiti de amor político social”.**

Simulacro Teatroren eskutik. Azaroaren 20an, Kultur Etxean, arrastiko 20:30ean.

ZINEMA

GETXO

► **Cinema paradiso.** Cadillac Records filma, azaroaren 13an, 22:00etan, azpitu- titulatua jatorrizko bertsioan. Ondoren zine-foruma. Andres Isasi musika eskolan.

► **Zine kluba.** “El desafío Frost contra Nixon” filmaren proiektzioa eta foruma. Azaroaren 20an, 22:00etan, Andres Isasi musika eskolan.

BESTEAK

BARRIKA

► **Irakurmena sustatzeko tailerra.** Azaroaren 12an, eguena, 18:30ean. Liburutegian.
► **Patinaje tailerra.** Azaroaren 14an, 11:30etik 13:30era, udaletxean. Izen emotea kultur etxean.
► **Gabonetako postalen lehiaketa.** 7 eta 11 urte bitarteko haurrei zuzendua. Epea azaroaren 27an amaitzen da. Argibide gehiago: liburutegia@barrika.net e-postan.

GETXO

► **Kontularien Kluba.** Algortako Kultur Etxean, azaroaren 13an, 19:00etan. Ipuin beltzen saioa.
► **Magia emanaldia.** “La magia de lñigo: ilusionate” ikuskizuna. Azaroaren 14an, 20:00etan, Andres Isasi musika eskolan. 10 euro.
► **Merkatuan bertsotan.** Algortako azokan, azaroaren 21ean, 12:00etan, Lizaso eta Peñagarikano bertsolariak, trikitixak lagunduta.
► **IV SMS eta e-posta lehiaketa.** 688 687 826 telefonora edo bizarralepoan@euskalnet.net helbidera. Azaroaren 16ra arte. Gaia: “Zure amak badaki...”

GORLIZ

► **Ipuin kontalaria.** “Liburuen iratxoa” ipuina. Azaroaren 14an, 18:30ean, ikasketxean.

BERANGO

► **Ibilaldi Neurtua.** Sei Herri kultur elkarteak antolatua. Azaroaren 15ean, goizeko 08:15etik aurrera. Herri- bazkaria, umeentzako ekintzak e.a.
► **Musikoterapia tailerra** Azaroaren 20an, 20:00etatik aurrera gaztelekuan.

ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



Kaleak hankaz gora

E-plana dela edo antzoki edo etxe barrien eraikitzea dela, azken hilabeteotan hankaz gora ipini dizkigute kaleak kaskodun langileek. Plaza, kale eta eskaileratan ditugu obrak eta kaleen norabide barrietara ohitu behar izan dugu. Batek baino gehiagok madarikazioak botako zituen umeen gurditxoagaz pasa ezinik egon edo kotxeagaz buelta erdia eman behar izan duenean. Pazientzia jainko arren!

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Erromoko etxe merkeak

eraikitzen, 1924

Urte dezente pasa diren arren, dirudienez ez dira gauzak lar aldatu 1924tik hona. Aurreko orrietan ikusi ahal izan duzunez, Uribe Kostako plazak eta kaleak hankaz gora daude obrak direla-eta. Orain dela 85 urte, Erromoko beharginak jo eta su ibili ziren beharrear "etxe merkeak" izenagaz ezagutzen direnak eraikitze (gaur egun, bat ere merkeak ez direnak). Baina, garai hartako beharginek, ez zituzten burdinazko aldamio erraldoiak eta plastikozko kaskoak erabiltzen. Buruan txapela eta soinean atorra; hori baino ez zuten behar. Argazkian behintzat elegante ikusten dira.

[berbetan]

Azken egunak Gandiagarekin liburuaz jarduteko eta gogoetarako nahiagaz jo dugu Joxe Azurmendi (Zegama, 1941) filosofo, idazle eta kazetariarengana (*Olerti, Anaitasuna, Egan* e.a. eta *Jakin*-eko bultzatzaile). Alemanian filosofia eta Erroman teologia ikasketak egin zituen, EHUKo Filosofia Modernoko katedraduna da eta oraintsu arte eskolak eman ditu bertan. Ebakuntza egin aurretik egin dugu berbetan saiogile oparoagaz; *Humboldt: hizkuntza eta pentsamendua* (UEU, 2008), *Volkgeist-Herri-gogoa: Ilustraziotik nazismora* (Elkar, 2007) eta *Espainiaren arimaz* (Elkar, 2006) trilogiaz eta horretan zein aurreko hainbatetan landu dituen gizartea, ideologia, herri kontzeptua, hizkuntza edota erlijio gaiez.

Joxe Azurmendi

pentsatzeko euskal modu bat

Testua: **I. Sagarminaga** / Argazkia: **ArgazkiPress**

—*Azken egunak Gandiagarekin* kaleratu barri duzu; 8 urteotan landua, lanik pertsonalena legez aurkeztua.

—Ez ditut eman 8 urte horrekin bakarrik, beste lan batzuk ere argitaratu ditut, eskolak eman... Aurreko liburuak gai jakin baten ingurukoak izan dira; esan liteke, hau aitortza dela, horregatik pertsonalena. Bi parte ditu: bata, Gandiagaren mundua, hari eta bere obrari buruzko gogoeta, bere obra hobeto ulertzeko, hobe esanda, Gandiagaren obran Gandiagaren pertsona irakurtzeko; eta bestea, nolabait esateko nire arazoen mundua, nire barne historia. Orain liburu handia da, baina kontatuko dizut: Gandiagaren laguna izan naiz 40 urte baino gehiagotan; haren liburuak, denak, argitaratu baino lehen ikusi ditut nik; notak, zuzenketak edo okerketak egin nizkion. Gandiaga gaixotu, hiltzeko zegoela genekienean, bai berak eta bai nik, telefonoz deitzen edo Arantzazura bisita egiten nion, eta Donostiara bueltan burutik hainbeste kontu pasatzen zitzaizkidan, ezen oharak idazten hasi nintzen. Hil ostean ere notak idazten jarraitu nuen, gaur existen-

tziari buruz, bihar Jainkoarenak... Gandiagaren Jainkoa dagoeneko niretzat balio ez duen zer bat da, baina zer da hori? Horietan pentsatzen hasten nintzen: existentzia, Jainkoa, heriotza eta horren tradizioa eta trataera kultura desberdinetan. Bestelako notak ere baziren: Gandiagak maite zuen herria euskaldun herri xumea zen, langilea, pobrea, euskaraz hitz egiten duena, Euskal Herrian bertan marjinatua egon dena eta dagoena... Gandiagaren herria eta Pio Barojarena, “el muy vasco”,


“Gandiagaren obran Gandiagaren pertsona irakurtzeko eta nire biografiako arazoen aitortza da lan berria”

baina “el muy madrileño”, ez dira bera; Barojarena Euskal Herriko jauntxoan Euskal Herri bera da, azken finean, Espainiako inperioaren zerbitzuan handikeriak egin dituzten morroixoen; ez hemengo geu. Gandiaga oso bizkaitarra zen! Mendatakoa eta Arratzukoa; beti esaten da “Gandiaga Mendatakoa”, ordea,

berak beti azpimarratzen zuen bietakoa zela. Mendatakoa eta Arratzuko jendea zen batez ere, Eibarko eta Soralueko langileria ere, berak maite zuena; euskaldun jende xume hori. Horren inguruko nota piloa daude, bestelako notak eta notak, pila bat neuzkanean, liburu itxura hartu zuten. Alde horretatik pixka bat kaotikoa da; batetik badelako Gandiagaren pertsona nola ezagutu bere obraren bidez, eta bestetik, nire biografia kontatzen ez badut ere, nire arazoen konfesioa ere badelako. Biak

Gandiagarekin elkarriketak, bigarren ere badelako Gandiagaren mundua, erlijiosoa kasu, nola mundu horrek nire barruan beste bide bat egin duen.

—Landu bako gogoetagaiak batzuk, adib.: existentzia, fedea, Jainkoa, heriotza. —Orain arte ez ditut aipatu nahi izan; orain aipatu ditut ez aztergai bezala, baizik



eta nire aspaldiko irakurketak eta baliatuz batez ere, geroako ere bai, baina horiek ez ditut hainbeste ezagutzen, beraz ez ditut landu. Neure gogoetekin osatu dut, ez beste autore edo liburu batzuekin; ez da ikerketa, horregatik da pertsonalena. Jainkoari buruz interesa duenak Jainkoari buruzko teologo bat irakur dezala, ez liburu hori. Alderantziz delako, azaltzen duelako nola norbaitek Jainkoaren kontzeptu bat izan zuen eta puskatzen joan zaion, eta bere buruari galde-tzen dio: “Aizu, orduan nola etorri zara?”.

—Lan hori egosi bitartean, hiru liburuki-ko trilogia mamitsua plazaratu duzu.

—Lan luzea izan da; atzetik aurrera argitaratu zen, baina idatzi ez. Euskaldunok badugu interesa hizkuntzaren balioan, hizkuntzak gizartean duen esanahiaz. Hainbatetan aipatutako gai inportantea da hizkuntza eta pentsamendua; hori landu nahi nuen, eta egin nuen Humboldt hartuz autore nagusitzat, bera delako figura zentrala, Chomsky baino lehen eta gehiago.

—Chomsky ibili arren gaur ahoz aho.

—Hizkuntzaren filosofian beti oso argi egon dira kontu batzuk, esaterako hizkuntza guztiak bat direla. XIX. mendean Linguistika bilakatu zen Linguistika Konparatiboa eta Linguistika Historikoa, hor ezberdintasunak aztertzen dira, ez hizkuntzen batasuna. Orduan, Chomskyk erantzun du horren kontra, hizkuntzetan desberdintasunak bakarrik azpimarratzearen kontra, berriro hizkuntzaren unibertsaltasuna, batasuna azpimarratuz. Chomskyk espresuki esaten du bera Humboldtten jarraitzaile dela. Orain, hizkuntza guztien batasunaren profeta bezala Chomsky bakarrik aipatzen da Linguistikatik bakarrik begiratzen delako, ez filosofiaren tradizioetik. Chomsky oso inportantea da Linguistika nagusi den esparruetan, baina filosofiarentzat oso tradizionala izan den gai bat berreskuratu baino ez du egin. Beraz, Humboldt da pertsona zentrala. Hark esaten zuen hizkuntza guztiak bat direla, gizadi guztia bat den bezala, giza arrazoimena unibertso guztian, Munduan, bat den bezala; baina, hizkuntzak beraien

artearen desberdinak ere badira. Humboldtten tesia da hizkuntza bakoitza nazio baten mundu ikuskera dela. Hori da hainbeste eztabaidatu den gai bat: nazioa-mundu ikuskera-hizkuntza lotura. Euskal zaletasun eta abertzaletasunaren kontra hainbeste aldiz polemika izaten denez, eta volksgeist-en (herri-gogoaren) erromantiko batzuketara kritika egiten dutenez, horri heldu

“Orain hizkuntza guztien batasunaren profetatzat Chomsky bakarrik aipatzen da, baina Humboldt da lehena, nagusia”

nahi nion. Hori aipatzen duten askok ez dakitelako zer aipatzen duten, edo gaizki aipatzen dute. Horregatik idatzi nuen liburua herriaren gogoia edo volksgeist kontzeptuaren historia azalduz, bere sorreratik Hitler-nazismora arte, erakutsi nahian izan duen esanahia. Hirugarrena idatzi nuen kritikatzeko edo nabarmen uzteko nola autore espainolek “el espíritu del pueblo”, “el alma del pueblo” esaten dutenean, tradizio literario eta aleman guztia aprobetxatu duten txarto erabiltzeko kontzeptua. Espainiari modu arrazistan aplikatu diote, filosofikoki modu txarrean. Batez ere Ortega y Gasset aipatzen dut; Unamuno eta Baroja ere. Baroja ere arrazista zen; Unamuno ez, baina espainolista bai; “el espíritu del pueblo” harrentzat “el espíritu de España” zen. Oso kurrusoia, beti burutik nahastuta dabil derrigo-

“Humboldtten tesia da hizkuntza bakoitza nazio baten mundu ikuskera dela; lotura hori da hainbeste eztabaidatutako gaia”

rez “el espíritu vasco” ere salbatu nahi due-
lako, baina, ez du asmatzen. Bizkaian zau-
detenez aipatu beharrekoa zen. Historiaren
filosofia benetan arrazista egin duena Orte-
ga y Gasset da, Espainiako filosofo nazional
handiena. Hori da inoiz esaten ez dena, niki-
esateko gogoia neukana. Euskal nazionalis-
moa erromantizismo alemaniar tradizioatik

datorrela esaten dutenei esan nahi nien: “ez; tradizio alemanetik, baina okertuz, txartuz datorrena Ortega y Gasset da, nazionalismo espāñolaren ideologo, inspiratzaile, autoritate gorena”. Hala, atera zena izan zen: hasi Humboldtekin, hizkuntza eta pentsamendua, nazioa=hizkuntza=mundu ikuskera=nortasuna; horren barruan kapitulu bakarra izan behar zuena liburu bihurtu zen (biga-

rena), eta horretan beste kapitulu bat baino izan behar ez zuenak berriro ere beste bat sortu zuen. Hirugarren hori Espainiari bereziki eskaini nahi niolako. Gehiegi aztertu gabe, Espainiaren arimaz nota batzuk baino ez dira, ez da sistematikoa. Sistematikoki landua Ortega y Gasset dago, agerian jartzeko nola ezkututzen den kontu hori.

—Espainiako Narratiba saridun barriaren poema batek ere badio: *“munduari begiratzeko modu bat... ez onena agian; ez ederrena agian; zaharregia, txikiiegia agian”*. Baina, gizarteak hizkuntza komunikazio tresnatzat baino ez du?

—Hizkuntza, komunikatzeko baino lehen, gutxienez momentu berean, zer komunika-tu nahi den erakitzeko baliabidea da. Lehe-nik mundua ikusten dugu hizkuntzarekin, gero esan hizkuntzarekin, biak batera; kon-

tua ez da lehenik ikusi-ulertu hizkuntza gabe (hori ez dugu inoiz egiten), eta gero komunikatu egiten dugula buruz bakarrik pentsatu duguna. Komunikazio tresnaren ideia beti egon da; aurrekoarekin batera filosofiarene historian aspaldian egon den ikuspegi tradizional okerra da, Humboldték gainditu eta Chomskyk onartzen duena.

Hizkuntza ez da bigarren momentuko agerpena, lehen-lehenekoa baizik, gizakia-
ren definizioan dagoena: gizakia izaki pen-
tsatzailea da izaki hitzuna delako. Txinpan-
tzeek ez dute pentsatzen ez dutelako hitz
egiten, komunikazioa badaukate ere.
—Komunikazioari beste hari batetik tira-
tuz, kazetari ere izan zara. Orduko euskal
hedabideetatik gaur artekoen bidea...

—Ez dago sinesterik! Badirudi gazteak losintxatzen hasiko naizela, baina ez. Gazte-tako gauzak ikusi, gerokoak ere, eta lotsa ematen dit. Neu hasi nintzen idazten euskara ez nekienean, idazten ez nekienean eta zer idatzi nahi nuen ere ez nekienean. Gu gatoz, gure belaunaldia, benetan, baldintza oso eskasetatik; Frankoren menpe eta... Sortzez euskalduna naiz, euskara gurasoen-gandik jaso nuen, baina gero euskara ia galdu nuen, gero berriabazi... Orain, ikusten dudanean nire ikasleek zein ongi idazten duten, harritu besterik ezin dut! Ez diot ondo gaudela, ikaragarri aurreratu dugula diot. Oraindik oso gaizki gaude!

—Non leudeke hobetu beharrak?
—Euskal prentsa, euskaraz bizitzea...
Lehenengo normalizatu egin behar dugu.
Kultura eta hizkuntza arrotz baten menpe
gaude maila guztietan, nahi edo nahi ez;
telebista, egunkariak e.a. beste hizkuntza
batzuetan irakurtzen ditugu denok, pro-
portziorik gabe indartsuago daudelako...
Nahita ez egunero beste hizkuntza batek
inbadituta gaitu, ez lagunduta, inbadituta.
Alde horretatik zapaltzen gaitu, eta erdaraz
lanean dabiltzan guztiak, ohartzen ez badi-
ra ere, zapaltzaileak gertatzen zaizkigu.

—Irakasle izanik ezagutzen dituzu belau-
naldi barriak. Zelako etorkizuna dugu?
—Ez dauzkadan dohain askoren arteko
bat profetarena da (kar, kar). Neure ingu-
ruko gazteei buruz inpresio oso ona dau-
kat. Bizitza pribilegiatua suertatu zait, la-
gun asko, oso jatorrak ezagutzea: Txillarde-
gi, Gandiaga, Joseba Intxausti, Juan Mari
Torrealdai, Gabriel Aresti... hainbeste!

**“Historiaren filosofia arrazista egin duena
Ortega y Gasset da; hori da ezkutatzen
dutena eta nik esateko gogoia duena”**

Gaur ere nire inguruko jende gaztea bene-
tan lanerako gogoia duena da, ematen due-
na, dohainak dauzkana. Baina, oso kon-
tziante naiz, autobus batean sartzea nahiko
da konturatzeko gazteria ez dela hori. Ez
naiz bolizko dorre batean bizi, baina ia-ia.
Dena den, nahigo dut horrela bizi.

—Gizartea filosofiatik urrunago dago?
—Beti egon da. Filosofia beti izan da, hobe horrela, erlijioa ez bezala, presentzia sozial agintzailea hartu ez duena. Aldamenetik, egin behar denaren lagun egile izan behar du; lanean dabilenari, borrokan dabilenari e.a. Ez gehiago. Lagun egin eta lagundu gauza bi dira, guk behintzat bereizten ditugu. Bestalde, badira pulpitura igotzen diren filosofo batzuk, egunkariak dira gaur pulpituak, eta munduari irakasten hasten dira zer dagoen ongi eta gaizki; hain zuzen hori da filosofo batek inoiz egin behar ez duena.

—Baina, badirudi, gogoetarako bidea erdi galduta duela gizarteak.

—Egia da. Presa eta presio handiko gizar-
tean bizi gara, batez ere hedabideak eurrak.
Garai batean, letrak oraindik astia zuena-
rentzat bakarrik balio zuen. Orain letrak,
telebista, irratia, medioak... dena presaka
dator. Alde horretatik, beharbada, lehengo
nolabaiteko itzala, garrantzia galdu du filo-
sofiak; baina ez poesiak edo saioek baino
gehiago. Momentu honetan, beharbada,

narratiba modu bat, ipuina edo nobela, ari da osoki nagusitzen, zinematik hurbilago edo dagoelako; gaur hortik doa ibaia.

—Chavezek Obamari Galeanoren *Las venas abiertas de America Latina* oparitu zion. Nori oparituko zenioke zeure *Demokratak eta biolentoak?*

—Ez dut inor gogoan. Ez ditut nire liburuak oparitzen, eskaintzen; salbu trilogia, andre-lagunari, hainbeste denbora kendu nion! A! Beste bat Lorentxo Oiarzabali galduta egon eta aurkitu zuelako. Bestalde, lan hori ez dut oso gogoan, oker ez banago artikulua-bilduma da. *Oraingo gazte eroak* sortu nuen gazteek eskatu-zirikaturata. *Demokratik eta biolentoak*, oker ez banago, izenburua ematen dion kapitulu hori ere gazteek eskatutako hitzaldi batzuetatik sortu zen; polemikan sartu nintzen: bakea, biolentzia, demokrazia e.a. Gazteei eskainia beharko; bestela, kontrakoei, baina, bada-kizu, horiek ez dute irakurriko. ○

 zure **diru-laguntza** behar-beharrezkoa dugu!

Boluntzarreta
BBK 2095 0121 10 9102483676
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

 **UK Uribe Kostako Aldizkaria** 171 posta kutxa / Amezti 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo / uk@aldizkaria.biz / Tf. 94 491 13 37



Blackpool 2008

Andoni Fernandez eta Igor Mercado leioztarren argazkiak ekarri dizkizugu oraingo honetan. 2008ko udan Ingalaterrara bidaia musikala egin zuten lagun biek. Bertan, Blackpool lau eguneko punkrock jaialdia bisitatzeko aukera izan zuten. Erabili eta botatzeko kamaragaz egindako argazkiak dituzu honakoak, bizitako giroa islatzeko helburua dutenak. Irudiakaz batera esaldi batzuk ere utzi zizkiguten Fernandez eta Mercado: *“Jo zuten taldeen artean ez zeuden ez Ramones, ez Clash, ezta Pistols ere; baina ez zen beharrezkoa. Punkrockak ez du idoloen beharrik”*.

Argazkiak: **Andoni Fernandez eta Igor Mercado**









I
ñaki
Bitxitegia

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 46
Telleixe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

OSABIDE HORTZ KLINIKAK
Arantza Ertebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontia
- Periodontia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

GAVRKO

GIZONENTZAKO
MODA

Telleixe 5
ALGORTA
Tf.94 460 70 84

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangoberri 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA

HARTU TXANDA

[zinema]

Kuletxov Efektua hedatuz

Hamaika telebista kateak film **klasikoak** euskarazko azpтитuluakaz emoten ditu



Dracula klasikoa emango dute. Hamaika TB: LTD-tik (Bilbo inguruan); Euskatelen Digitaletik

Eguaztenero (22:30) eskaintzen du Hamaika telebista kateak Kuletxov Efektua saioa. Oskar Bilbao zine adia-tuak aurkezten duen saio horretan film klasikoak jatorrizko bertsioan eta euskarazko azpтитuluakaz eskaintzen dituzte. Arduradunek azaldu dutenez, “zinea bikoiztua ikusteko ohitura txarra dugu, gauza asko galtzen ditugu: ahotsa, aktoreen interpretazioa eta lana e.a. Horregatik jatorrizko bertsioa bultzatu gura dugu, eta era berean euskaraz eskaini, azpтитuluakaz”. Dagoeneko, besteak beste, *Tarantula* eta *Fahrenheit 451* filmak eskaini dituzte, gainera eguztenetan emanaldia asteburuan iluntzean ere ikusteko aukera dago. Aurrerantzean eskainiko dituzten film klasikoen artean hurrengoak daude: *Charade* (Stanley Donen; 1963), *My fair Lady* (George Cukor; 1964), *Night of the Living Dead* (George A. Romero), *The Last man on earth* (Sidney Sdalkov; 1964), *The Third Man* (Carol Reed; 1949), *The Man Who*

Knew Too Much (A. Hitchcock; 1934) *39 Steps* (A. Hitchcock; 1935) *Freaks* (Tod Browning; 1932) *Dracula* (Tod Browning; 1931), *The Extrange* (Orson Welles; 1946), *Rashomon* (Akira Kurosawa; 1953), *Dementia 13* (F. F. Coppola; 1963), *Savotage* (A. Hitchcock; 1942), *Last Woman on Earth* (Roger Corman; 1960), *Metropolis* (Fritz Lang; 1927);

«Eguaztenero (22:30) ematen dute saioa, eta asteburu iluntzetan ere badago aukera»

Its a Wonderfull Life (Frank Capra; 1946), *White Zombie* (Victor Halpering; 1932), *Bad Taste* (Peter Jackson; 1987), *Scarlet Street* (Fritz Lang; 1945), *M* (*M*, *Dusseldorf-eko banpiroa*; Fritz Lang; 1931), *Un Chein Andalou* (Luis Buñuel eta Salvador Dali; 1929) eta *Alphaville* (Jean Luc Godard; 1965). Horrenbes-tez, zinezaleek badute hitzordu interes-garria eguztenetan Hamaika Telebistan, Kuletxov Efektuagaz. o

Erromeria gaztea

Aurreko udan Uribe Kostako plaza-dantzaldi andana alaitu du **Auskalo Non** taldeak



Auskalo Non taldeko kideak. Informazio gehiago: www.myspace.com/auskalonon

Auskalo Non taldearen sorrera ohiko bideetatik joan bada ere, zalantzarik ez dago jorratzen duen musika estiloagatik eta taldeekideen gaztetasuna medio, talde berezia dela. Gaur egun Urduliz, Gatika eta Mungiako musikariek osatzen duten talde-aren hazia 2007ko irailean erne zen eta erromeria jorratzen du. Nerea Sistiaga (ahotsa; panderoa), Mikel Barandiaran (trikitia), Gotzon Batikon (teklatuak; ahotsa), Josu Zunzunegi (gitarra), Eder Lopez (baxua) eta Josu Elorduyren (bateria) talde-ak “berbena estilo bat” lantzen du, adierazi dutenez, “*geuk erromeria esaten diogu, geure*

kantuez gainera, talde euskaldunen bertsioak jotzen ditugu. Nahiko bitxia da, bai; norma-lean gazteek rocka-eta jotzen edo gustuko dutelako, baina zelanbait esateko, gure musi-ka kulturak, ez entzuten duguna, “ikasi-landu” dugunak baino (trikia, panderoa e.a.) eragina izan du. Ez hasieratik hala erabakita, baina horrela urten da, eta polita iruditu zi-tzaigun”. 9 abestik osatzen duten *Amets baten parodia* maketa grabatu dute, baina “gogotsu” grabatuko lukete disko editatua. Hilaren 13an Hezetasun auzoko (Algorta) jaietan emango dute kontzertua. o

Harremanetarako: 656 612 735

diskoak

Gorria Gose Gose	Ordenagailuz moldatutako musika eta trikitia uztartzen du hirukote arrasatearrak hirugarren disko honetan. Euskal Herria kontzertuz kontzertu zeharkatzeaz gain, Japonian ere bost emanaldi emoteko asmoa dute. Esperientziadunak dira Goseko lagunak honetan, Kurdistanen 50.000 ikusleren aurrean jo baitute aurtien.	Baionarena Manu Chao Because music	Beste zuzeneko bat kaleratu du Manu Chao musikari ezagunak. Radiolina tourra amaitzeko Lapurdiko hiriburuan grabatutako kontzertua jasotzen du lan barriak. Ordu bi eta erdiko emanaldia disko bitan eta DVD batean jaso du Chaok. Betiko estiloan, Radio Bembaren laguntzagaz: rock, reggae, rumbak e.a.
		Bulerias africanas JJband Bloody productions	Jose Juan Martinez baxu jotzaile eta konpositoreak bere hirugarren grabazioa egin du. Flamenkoaz gain, jazza, erritmo afrikarrak, musika arabiarra eta funka jorratzen ditu. Horretarako, Kiki kantautore andaluziarra, Georgia Piko baterajolea, Rebeca Laurent dantzaria eta beste hainbat lagunen kolaborazioak izan ditu. Lan ezberdina eta interesgarria.

[musika]

koska irratia > saio berezituak

Urrian, hasieran bata eta erdialdean bestea, aurkeztu zituen Uribe Kostako irrati libreak, Koska Irratiak, *Bashatee* eta *Swing Doinuko Gauak* saioak. Arduradu-nek azaldu legez, lehenengo irratsaioa “*irratien programazioetan hutsune handia ikusten zutelako sortu da; ez dago pro-gramazio zehatzik musika elektronikoaren arloan; askoz gutxiago euskaraz”*; hala, musika elektronikoaren *Bashatee* saioa barikuetan (23:00-01:00) eskaintzen dute (zapatuetan tarte berean errepikapena). Ostera, *Swing Doinuko Gauak*-en ardu-radunen esanetan “*horrenbeste denbo-ran ulertezina, elitista edo zaharrentzako musika denaren mitoa bota nahi dugu”* eta barikuetan (19:00-20:00; errepikape-na domekatan, 23:00-00:00) “*jazzaren mundu misteriotso eta erakargarrian sartzeko gonbidapena”* luzatu dute.

Informazio gehiago:
www.koskairratia.com

disko barria > Piztiak

Hilaren 28an, jaioterriko Kafe Antzokian, egingo du Ondarroako Piztiak taldeak disko barriaren zuzeneko aurkezpena, jatorrian. Egitasmo zabal baten alde bat baino ez da *Gabeko kalapitxak* lan barria, horregaz batera Josu Eizagirrek egindako bideoklipa eta film laburra, eta Josu Aranbarri taldekidearen marrazki-komiki erakusketa bultzatuko dituzte-eta. Buztanbeltza zigiluan autokoiztu duten diskoko zenbait kanturen berbak Kirmen Uriberenak dira eta Petti abeslariak ere lagundu du ahotsetan.

Informazioa: myspace.com/piztiak



Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau aurkezten baduzu
%50eko deskontua
izango duzu zure autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00

Uuribefm 107.8
Gorliz Irratia

[liburuak]

Erlea, 1.700 lorarentzako Euskaltzaindiak literatur aldizkari barria kaleratu du Atxagaren zuzendaritzapean

Iragan urriaren 8an argitu zuen Euskaltzaindiak literatura “liburu-aldizkari” barria, *Erlea*. Bernardo Atxaga erlezain nagusiaren fruitua lau hilean behin helduko da, 136 lakain (edo orrialde) izango ditu eta 12 eurotan salduko da azokan. *Erlearen* koloreen eta marren diseñuaz Pamiela argitaletxea arduratuko da. Asteasuko idazleak eta euskaltzain osoak zuzentzen duen literaturagaz lotutako aldizkari horren bidez, Akademiaren helburua “kulturgintzaren arteko lotura sendotzea da”. Oraingoz, 10 zenbaki plazaratzeko muga ipini dute (3 urteko bizia), epea betetzean ibilbidea aztertu eta erabakiko ei dute erlauntza handitu ala...

«Lau hilabetekaria da, liburudendetan dago salgai eta 12 euro balio du»

Erlea-ren lehen zenbakiko azpitu-luak “1.700en aldizkaria” dio. Izan ere, 1.700 lili, ez gitxiago ezta gehiago ere, lorautseztatzeko asmoa baitu; Atxagak azaldu legez, “*Gure gogoa 1.700 ale aterata eta 1.700 erole izatea baita. Ez da gutxi, euskal literatura deitzen dugun honetan*”. Jakina da erleek loraz lora daroatela lorehautsa, horrenbestez, “*badakit 17.000 ere izan gaitzkeela, baina hori da erron-*



Informazio gehiago: www.euskaltzaindia.net

ka”, adierazi du. Ale bakoitzak bere “atmosfera” izango du eta kalean dagoen lehenengoarena *Far West*-a (Mendebalde Urruna) da, zuzendariak Nevadako egonaldian jasotako goiargiaren eraginez edo. Datozenak Irlanda, Afrika eta Suedian girotuta egongo dira. Euskarazko testuak (hamarretik zazpi) eta itzulpenak izango ditu, eta euskal idazleek zein atzerrikoek izango dute bere lore-hostoa; luzea da lehenengoaren partaideen zerrenda. Atalei dagokienez, “Urrezko liburutegia” (liburu gomendagarriak), alkarrizketa bidezko kritikak, ezohiko alkarrizketak e.a. izango ditu. ○

liburuak



Handitzen handitzen
Amaia D. de Monasterioren
Tartalo
Janari azkarraren garaian bizi garen honetan, oso garrantzitsua da etxeko txikien elikadura behar bezalakoa dela bermatzea; ohitura onak txikitatik hartu behar dira. Liburu honetan, umeei jaten irakasteko gomendioak eta 200 errezeta goxo aurkituko dituzu.



Ahaztuen mendekua
Alberto Ladronek
Elkar
Iratiko oihanean kokatu du Alberto Ladronek polizia-eleberri honen trama nagusia. Ane eta Oskar, protagonistak, eztabaida gogorra izaten dute; handik gutxira Ane desagertzen da. Aspaldiko gai ilun asko urtengo da argitara neskaren desagertzearen ikerketan.

[kirola]

Eskaintza zabala umeentzat Getxo Kirolak udal erakundeak laugarrenez ipini du abian Multikirolak ekimena



Eskian jardutera Alto Campoora (Kantabria) hurreratuko dira

Getxo Kirolak udal erakundeak, 12 ikastetxek, bertoko Guraso Elkarteek eta udalerriko 14 kirol taldek bultzatzen duten eskola kiroleko programa, Multikirolak, laugarren urtez abiatu da. Bostehundik gora eskola-umeri begirako ekimenak 17 kirol motatan jarduteko aukera eskainiko du aurten, hain zuzen hurrengoetan: txirrindularitza, atletismoa, eskubaloia, irristaketa, boleibola, esku pilota, herri kirolak, saskibaloia, igeriketa, futbola, kirol egokitua, hockeya, errugbia, piraguismoa, arrauna, surfa eta eskia. Azkeneko laurak izan ezik, hurrenez hurren Kirol Portuan, Barinatxe hondartzan eta Alto Campoon (Kantabria) egingo direnak, gainontzeko kirol jarduera ia danak Faduran lekutuko dira.

Joan den urtean programa getxoztar honek “tokiko administrazioko erakundeari Bizkaia Saria jaso zuen, eskolan kirola sustatzeagatik”, udal arduradunek jakinarazi dutenez.

Eskola-umeentzako kirol eskaintza zabalak osatzen du, beraz, programa.

Horrez gainera, aurtengo denboraldiari begira, barrikuntza nabarmena dakar, eskaintza hori are gehiago zabalduko duena. Izan ere, domekatan ere Multikirolak parte hartzeko aukera eskainiko dute. Hau da, hainbat domeka goizetan ere kirol ezberdinetako (bakoitzari dagokion datan) saioak egongo dira, ordu eta erdiko iraupena izango dutenak.

«Aurten hainbat domekatarako saioak ere antolatu dituzte»

Arduradunek azaldu legez, “Lehen Hezkuntzako 1, 2 eta 3 mailetako getxoztarrrak ezezik, herritik kanpoko eskoletan matrikulatuta dauden eskolameak ere kirol modalitate asko egiten hasi ahalko dira”. Saio horietan parte hartu gura duenak beheko zenbakian eman dezake izena.

Ekimena dagoeneko abian dago eta datorren urteko ekainaren 12an amaituko da Faduran ospatuko den jaiagaz. ○

Harremanetarako: 94 430 80 70

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kirol moda

350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / Tf. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNIEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.

- MARKEA GASTATIA
- 24 OREKUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 35 URTEZ ZURE ZERBITZUARI
- ITXERPA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 - ALGORTA

Ane Olabarri Etxebarria > Urtxintxa Eskolako euskara arloko arduraduna

“Euskara transmititzeko modu erraz eta dibertigarria sortzea izan da helburua”

Goizetik gauera arte euskaraz abesteko aukera izango dute haurrek Urtxintxa eskolak kaleratu barri duen “Katramila” liburuari esker. Uribe Kostan liburua erabiltzen ikasteko ikastaroak egingo dira.

—Zergatik erabaki zenuten abesti-jolasez osatutako liburua ateratzea?

—Jolasen arloan ikusi genuen zer edo zer barria egin behar zela, ume txikienezko materiala apur bat barriztea falta zelako. Ondorio moduan ikusi genuen egunerokotasuneko beharrak euskaraz egiteko liburu bat egitea aproposa izango zela. Ume askori behar batzuk egitea asko kostatzen zaio: higiene kontuak, jostailuak batzea e.a. Pentsatu genuen ekintza hauek motibagarriagoak izan daitezkeela abestiakaz laguntzen baditugu. Eta beste alde batetik euskara sustatzea eta transmititzea da helburua.

—Eta zer da Katramilan aurki dezakeguna?

—29 abesti-jolasek osaturiko liburua da, goizeko 08:00etatik gaueko 22:00etara egunero euskaraz bizitzen lagunduko duena, naturaltasunez. Ordu erdiro abesti bat proposatzen dugu, egunerokotasunean haurrek egin behar dituzten ekintzak euskaraz eta alaitasunez egin ditzaten. Ez dago beraz gurasoei zuzendua bakarrik, baita hezitzaileei, aitate-amamei, begiraleei e.a. Abesti bakoitzak bere fitxa dauka: nola erabili behar den kanta hori, bere pentagrama, azalpen pedagogikoa... Dena den, liburuxka bakoitzak bere diskoa ere izango du, abestiakaz. —Zergatik abestiek osatutako liburua? Nondik atera dituzue kantak? —Batez ere umeek abesti eta jolasen bi-



Urriaren 29an aurkeztu zuten Katramila egitasmo barria Urtxintxako lagunek

dez ikasten dutelako. Baliabide erraza da, azkenean euskara transmititzeko era dibertigarria delako. Abesti gehienak guk sortu ditugu, baina beste batzuk eskola batzuetan erabiltzen direnak dira. Baten bat kanta zaharra ere bada, baina gehienak barriak dira. Beste batzuetan doinu ezaguna erabili dugu eta guk letra jarri diogu. Abesti batzuek jolas txiki bat

“Egunerokotasunean haurrek egin behar dituzten beharrak alaitasunez eta euskaraz egiten lagunduko du Katramilak”

ere badute, haurrek kantatzen duten birtartean jolas dezaten. Beste abesti batzuentzat ere koreografiak sor daitezke, sormena landuz...

—Guraso erdaldunentzat baliagarria da? —Bai, guztiz baliagarria da eurentzat ere. Beste modu bat da gutxienez guraso erdaldunak euren seme-alabakaz euska-

raz aritzeko. Bestela, umeek askotan euskara beharragaz eta eskolagaz lotzen dute bakarrik. Ikastaro batzuk ere antolatu ditugu guraso eta hezitzaileentzat liburua nola erabili behar den erakusteko. —Liburua eratzerakoan beste balore batzuk ere izan dituzue kontuan, ezta? —Bai. Alde batetik bizikidetzaren sustatzen saiatu gara. Liburuan zehar mezu

positiboak transmititzen ditugu, abestien letrakaz adibidez. Parekidetasuna ere kontuan hartu dugu, familia ereduak lantzen ditugunean esaterako. Bestalde, kulturartekotasuna ere ez dugu ahaztu. Horren inguruko abesti bat sortu dugu, beste kultura batzuetako haurren izenak ipini ditugu e.a. ○

Zre amk badki...?

IV. SMS & E-MAIL lehiaketa



Azaroaren 16ra arte

Sariak: notebook, argazki kamera eta mendiko motxila.



Irabazleak: www.blogaci.net/bl-en egongo dira

Info+ Kacitate Kalea 1, sotoa 10.bulegoa | 94 491 43 57
bizarralepoan.euskalnet.net | www.blogaci.net/bl

Baldintzak: 1. Pertsona bakoitzak nahi beste lan bidali ditzake. 2. Gaia “Zre amk badki...?” izango da. 3. Lanak euskaraz eta jatorrizkoak izan behar dira eta ez dira onartuko beste lehiaketaren batean aurkeztutakoak. 4. Mezua sms lean sartu behar da eta e-maila gehienez 300 karakteretako. 5. Lanak jasotzeko epea mugatua izango da 2009ko azaroaren 16ra arte. 6. Sms-ak 688 687 826 telefono zenbakira bidali behar dira eta e-mailak bizarralepoan@euskalnet.net-era. 7. Sari bakoitza azaroaren 21ean Andres Isasi musika eskolan irango den izotzen distira galan egingo da.



“Kaleak erakartzen nau, eta kale honek bereziki, xarma berezia baitu niretzat”



“Barrerak ziren orduko paisaiaren ezaugarri nabarmena, itxura berezia ematen ziotenak”

Telletxe kalean bizi eta hazi nintzen eta, beharbada, horregatik naiz gaur egun “urbanita” samarra. Autoen zarata gorabehera, Telletxe kaleko eguneko giroa dut gustuko, gaurko plazakoa batik bat: jendearen joan-etorria, ezagunak nonahi, zapatu goizeko kafetxoa, lagunartea... hau guztia da Telletxe niretzat, eta ez nuke inola ere galdu nahi! Egia da Getxok bestelako hainbat bazter eder dituela, bai itsas aldean, bai baserri girokoak. Baina, esan dizuedan moduan, kaleak erakartzen nau, eta kale honek bereziki, xarma berezia baitu niretzat. Lehengoak bazuen, baita oraingoak ere.

Kalearekin lotutako makina bat irudi eta anekdota datorkit gogora. Neba gaz-

teena bere gurdixotik bota nuenekoa, adibidez. Sasoi hartan espaloiak estuak ziren, errepidearen albo banatan, errepide honek -bizkarrezurra balitz bezala- bitan banatzen baitzuen kalea. Bada, gurditxoa hartu eta paseoa hasi nintzen. Kontu hau zelan amaitu zen esan dizuet, jada. Garai bateko manifestazioak ere oso gogoan ditut, gure etxeko leiho paretik igarotzen baitziren; pertsiak erdi jaitsita, zirrikituetatik ikusten genituen, gurasoek besterik esaten ziguten arren. Zer esanik ez, tren geltokia eta trenaren inguruko guztia: geltokiko taberna-bertoko igel-jokoa- eta barrerak. Barrerak ziren orduko paisaiaren ezaugarri nabarmena, itxura berezia ematen ziotenak.

Etxean entzuna nuen “barreretatik gorakoak” eta “barreretatik beherakoak” bazirela, trenbideak eta barrerek herrirarrak, eta herria bera, mailakatuko balute bezala. Ezkondu nintzenean nahiko “behera” joan nintzen bizitzen. Etxekoei urrun joan nintzela iruditu zitzaizen. Gaur egun ere, oraindik, algortar bati baino gehiagori “Bikain” jatetxea non dagoen galdetuz gero, “barreren ondoan” dagoela erantzungo dizu. Haatik, metroa etorri zen, eta metroa etortzearekin batera trenbidea, barrerak eta gainerakoak desagertu ziren. Lehen errepidea zena orain plaza da; plaza, topagune. Askorentzat, ni neu barne, herriaren bihotza. ○

Cabo Matxitxako

Itsasoratu aurretik zein ostean



Cabo Matxitxako tabernako lagunak

Itsasoratu aurretik zein ostean, mokadua hartzeko gogo izaten dute gehienetan marinelek. Izan ere, itsasoak nekatu egiten du eta energiak barritu behar izaten dira. Ondo daki hori Roberto Blas algortarrak, Cabo Matxitxako tabernako jabeak. Urte bi joan dira Kirol Portuan dagoen taberna kudeatzen hasi zenetik, nahiz eta 1998tik dagoen zabalik: “*Bertan egiten nuen behar; jabeek saldu zutenean, erostea erabaki nuen*”.

Goizean goiz zabaltzen dute eta gauera arte egoten dira, horregatik denetariko jendea hurreratzen da: “*Goizean gosaltzera datoz, eguerdi partean poteora, eta gauean, trago luze bila*”. Tortillak, txanpiñoi nahaskia, bokadilo txikiak... pintxo aukera zabala dute: “*Arrantzan doazenak edo Kirol Portuan*

itsasontzia eduki eta nabigatzera urteten direnak hurreratzen dira jateko eta zintzurra bustitzeko gogoz”.

Bariku eta zapatuetan, goizaldeko 03:30ak arte egon daiteke Matxitxakon. Azken urtean, Kirol Portuko parranda giroak gora egin du: “*Aurreko urte bietan beherakada nabaritu genuen, baina aurreko barriro hasi dela dirudi. Parkinga dago eta horrek eroso egiten du hona hurreratzea*”. Hilean behin, jai bereziak antolatzen dituzte: “*Urrian jai hippya egin genuen uda agurtzeko. Ondo dago noizbehinka horrelakoak egitea, errutinagaz apurtzeko*”. Kirol emankizunak ikusteko aukera ere ematen dute: “*Rugbya, futbola, tenisa... denetarik jartzen dugu*”. ○

Kirol Portua 8, NEGURI
Tf. 94 460 25 01



ARTAZA ETXEA
JATETXEA

- gosariak
- txuletoia • bakailoa
- arrain freskoa

asteburuetan bazkari eta afariak enkargaz

Erreserbak: 94 463 03 92

Aratza Etxea Etxikina • Gobeia eraikitzen ariren • LEIOA

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25

AREETA



KONTXI



ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaketan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



GOZOLABEA

GALDARETXE

- Maidagan 35, GETXO Tf. 94 491 11 25
- Mayor 17, AREETA Tf. 94 464 77 29
- Sobino Arana 67, LEIOA Tf. 94 464 40 58
- Telletxe 11, ALGORTA Tf. 94 460 32 14
- Sobino Arana 8, SOPELA Tf. 94 676 11 01

Toponimoa > **Telletxe**

Telletxe (Etxebizitza):

Telletxe baserria egungo kalearen ondoan zegoen, Piñaga kalean Katearen ondoan. Izena argia da osagaiak tella eta etxe baitira. Gaur egun horrelako izenak deigarriak dira, baina arrazoia antzina teilatuak egurrezko teilez egiten ziren eta horregatik deigarria zen keramikazko teilaz egindako etxea. Tellaetxe>Telletxe aldaketa aspaldikoa da, euskarazko ohikoa baita ea>e egitea, Oleta/Olaeta kasuan bezala. 1953an etxeko jabea lanabesak gordetzeko etxola bat eraikitze baimena eman zioten jabea. 1935ean sustapen batzordeak izenik bako kale, bide edo plazen ikerketa egin zuen. Algortako geltokiaren eta Katea izeneko sestra-bidearen artean zegoen kale barriari Telleche jartzea erabaki zuen: Erabakia zentzuzkoa izan zen horrela deitzen baitzen inguru hori. Ikus *Tellaetxe* izena.



BASALBO BASERRIA

JATETXEA

Tf./Fax: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTATA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbo@basalbobaserria.com




prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Antzara z.g. • T.F. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO



BATIZ KRISTALDEGIA

- BIKETAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAGAZ
- ISMILU ERREALDOAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z.g. (Sarrikobasogaz bat)
Tf. 94 430 69 42 /ALGORTA



GOIZEAN

"Gozaki eta prentsa, gutxi denik ez prentsa"

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lisamariak

Ordutia Mondatzen 1 Telefono 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA



Usategi kafetegia



Usategi parkea z.g.
Algorta

*Tf. erreserbak: 94 460 64 13

[horoskopoa]

 URA (Abenduak 21 urtarrilak 19) Ez kontatu guzurrik, zer uste duzu, jendea ez dela konturutzen? Ezin izango duzu zure sekretutxo luzaroan gorde, danok dakigu zer ezkutatzen duzun ohe azpian... edo barruan!	 OTSOA (Urtarrilak 20 otsailak 18) Parrandan zaudenean ligatzen saiatzen zara, alferrik. Begiradak urrutitik, irribarreak, keinuak, dana probatu duzu. Zuk ez duzu ligatuko, baina ez dakizu zelako barreak egiten dituzten lagunek zure kontura! Bada zerbait!	 ADARRA (Otsailak 19 martxoak 20) Lagunakaz atzerrian zaudenean euskara barra-barra urteten zaizu, baina gero hemen gutxitan entzuten zaitugu euskaraz berba egiten. Ohitura falta ez da aitzakia, txip-a aldatu behar duzu!
 AITZURRA (Martxoak 21 apirilak 19) Barri ezinhobea jasoko duzu aste honetan, espero ez zenuen arren. Batzuetan bizitzak horrelako ezustekoak emoten ditu, zure esku egongo da aprobetxatze!	 HOSTOA (Apirilak 20 maiatzak 19) Erromerietan lehenengoa zinen lehen, Gozategiren abesti danak ezagutzen zenituen. Zer gertatu da? Patxangero hutsa bihurtu zara, reggaeton-a dantzatzen egun osoan. Ondo egingo bazenu gutxienez! Itzuli trikitira, mesedez!	 EGUZKIA (Maiatzak 20 ekainak 18) Eperdia lodituko zaizu ordenagailuaren aurrean hainbeste ordu sartzen jarraitzen baduzu. Zer dago sarean bada, hain interesgarria dena? Birus aurpegia jarriko zaizu azkenean!
 GARIA (Ekainak 19 uztailak 18) Tik-tak, tik-tak... denbora aurrera doa eta buruan dituzun proiektu danak bere horretan jarraitzen dute. Ez galdu denborarik, benetan gustatzen zaizun horretan hasi eta bizitza gozatu!	 LASTOA (Uztailak 19 abuztuak 17) Zein alaitsu zauden azken boladan! Beharrean gustura, etxean betiko lez, koadrilagaz bikain, ez duzu griperik hartu... Aurpegian igartzen zaizu dana ondo doakizula, merezi duzu!	 IRATZEA (Abuztuak 18 irailak 16) Zure egunerokotasuna hautsiko duen proposamena egingo dizute. Aldeko eta kontrako argudioak kontuan hartu, eta bestek pentsatzen dutenaz paso egin. Zure etorkizuna zeuk bakarrik erabaki !
 META (Irailak 17 urriak 16) Kirola egiteko ez duzula denborarik? Izan daiteke, baina gero parranda botatzeko denborarik ez duzula ere esan beharko zenuke, ezta? Berangoko ibilaldi neurtuan biak uztar ditzakezu!	 HAZIA (Urriak 17 azaroak 15) Lagun bat laguntza eske etorriko zaizu. Agian ez dizu zuzenean eskatuko, baina zure beharra du, eta zuk galdetu beharko diozu zer gertatzen zaion. Bere alboan egon, eskertuko dizu.	 NEGUA (Azaroak 16 abenduak 20) Goizean pozik, eguerdi aldean arraro eta gauerako triste samar. Horrela sentituko zara, eta ez diozu azalpenik aurkituko. Animo laguntxo, ausarta bazara, erantzuna topatuko duzu!



aldizkariaren
eskutik


ESTREINALDIA

“Erretratuak” erakusketa eta
“Getxo, akordaten naz”
dokumentala azpituluekaz

Erakusketa
abenduarien 2ra arte
egongo da
Alday Patronatuko
halean

Azaroaren 25ean, 19:30etan
Alday Patronatuan (Karitate kalea, 1)

Luntx goxo-goxoa eskeiniko da




» HIZKI-SALDA

Honetxi zazpi musika tresna. Hizki-saldaren barruan daude. Aurkitu!



B	I	B	I	O	L	I	N	A	O
A	G	I	T	A	K	A	L	G	M
T	A	K	O	R	D	E	O	I	A
E	O	T	A	K	E	B	X	T	L
L	N	R	B	A	P	I	J	A	D
T	O	O	I	F	S	A	E	R	I
X	F	E	T	K	L	N	T	R	M
A	O	D	E	U	B	H	Z	A	G
B	L	L	R	X	I	L	O	K	U
U	I	I	A	I	R	E	T	A	B
A	X	N	T	X	I	B	X	O	D
T	R	O	N	P	E	T	A	N	A

» LABIRINTOA



ez horren gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Zelan du izena
“Berbetan” atalean
elkarrizketatu dugun
Joxe Azurmendiren
azken lanak ?

> Aurrekoaren erantzuna: Erandioko gertakariak
> Irabazlea: **Apolinar Bilbao***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

*Zer daroa buruan
UK-ko ale honetako
azaleko gizonak?*

- **Mexikar txanoa**
- **Txapela**
- **Gandorra**

> Aurrekoaren erantzuna: Zapatilak
> Irabazlea: **ez da egon irabazlerik***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

SARIA

Usategi
kafetegia

Usategi parkea z.g. Algorta
Tf. erreserbak: 94 460 64 13



SARIA

La Gusana
liburudenda

Tellagorri plaza, Algorta
Tf. 94 491 14 12



Bidalari erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



ANGEL M^a GOROSTIDIK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

ERANDIOKO "GOIKO-LANDA" FUTBOL TALDEA, 1959

“**Getxo**” futbol taldeak urte askotan udan antolatu zuen gazteen arteko txapelketa, Gobela futbol zelaian, futbolaririk trebeenak gero fitxatzeko asmoz. Orduan bai “Getxok”, bai “Arenasek” Gobelan jokatzen zituzten beraien partidak; Fadurako gaurko futbol zelaia, zaldi lehiaketak eta egiteko erabiltzen zen. Gobelan ateratako argazkian Erandio Goikoako "Goiko-Landa" futbol taldea dugu, Gazteen mailako 3. Futbol Lehiaketako txapelduna, 1959ko uztaillean. Harrigarria da "Getxo" taldearen elastikoa soinean dutela ikustea, baina arrazoia oso arrunta da: erandioztarren elastikoak ez zeuden sikatuta eta, horregatik, Goñik, "Getxo" taldeko "utilleroak" utzi zizkien beraienak. ○

Zutunik: Rogelio Mendez (atezaina), Juan Jose Sangroniz (GB), Jose Antonio Aurrekoetxea, Jose M^a Cortijo, Ignacio Mota (GB), Jesus M^a Goikoetxea.
Makurtuta: Sabin Aresti, Tomas Legarreta (GB), Juan Antonio Esparta, Javier Etxeberria, Angel M^a Gorostidi.

OIHANA BARTRA > bertsolaria

“Gogo barik ere, taberna da bertsoak botatzeko lekurik onena”

Testua: **Julen Nafarrate**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.
Alaia eta sentibera.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?
Hegan egin ahalko nukeen batean, Supermanen, adibidez.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?
Gura dudanean jarduten dut, gutxi gorabehera.

Zure hautzaroko oroitzapen bat?
Nire neba eta biok borrokan. Beti ibiltzen ginen elkar zirikatzen eta azkenerako borrokan amaitzen genuen beti.

Badaukazu ohitura txarren bat?
Gauzei buelta gehiegi emotea.

Aitor dezakezun bizio bat.
Txokolatea.

Barriz egingo zenukeen bidaiarik badago?
Marokora. Orain dela pare bat urte joan nintzen koadrilako bategaz, baina bidaia hasi aurreko egunean oraindino Lezoko topagunean geunden, ezer prestatu barik, eta apur bat desastre izan zen.

Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen?
Ez dut uste barka ezin daitekeen hutsegiterik dagoenik.

Zein da zure ametsetako bat?
Askatasuna, zentzu guztietan. Herriarena, presoena, sexu-askatasuna, norberarena...

Zer barik ezin zaitezke bizi?
Nire jendea barik.

Bertsoak botatzeko lekurik onena?
Taberna. Nahiz eta batzuetan bertan egon eta batere gogorik ez izan.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?
Itsasoa eta mendia batzen dituen edozein. ○

LABURREAN— Urriaren 3an Oihana Bartra bilbotarraren bertsoakaz gozatzeko aukera izan genuen, Txapelketa nagusiko lehen kanporaketan. Finalaurrekoetarako txartela gutxigatik lortu ez badu ere, saio txukuna egin zuen 25 urteko bertsolariak. Aurretik sari ugari eskuratu ditu: Bizkaiko eskolarteko txapelketan txapeldun izan da 3 urtetan (1999, 2000, 2001), 2004an Osinalde saria irabazi zuen, 2005ean Abra sariketa, Bilboaldeko bi txapelketetako sari nagusiak ere lortu ditu... Sariak sari, Erromoko bertso eskolako irakaslea delako ere ezaguna egiten zaigu Bartra Uribe Kostan. Egun, irakasle ari da Loiuko Lauro ikastolan, Euskal Filologian lizentziatu ostean.

Azaroaren 20tik abenduaren 3ra
EUSKAL KULTURAREN XI. JARDUNALDIAK
Del 20 de noviembre al 3 de diciembre
XI JORNADAS DE LA CULTURA VASCA

euskara, guztion ahotan en boca de todos



Lanik jarraituko dugu
azaroaren 16ra arte
Pozte de presentación
hasta el 16 de noviembre.

Azaroaren 20a 20ra arte
Del 2 al 20 de noviembre

Azaroaren 20an
20 de noviembre
VIII. Nazioarteko Trikitia Jaialdia
VIII Festival Internacional de Trikitia

Azaroaren 21ean
21 de noviembre
MIXTAUEN BERTSOAN
Licaso-Pelagarkano

Azaroaren 21ean
21 de noviembre
IZARREN DISTRITA GALIren II. edizioa
II edición de la SALA IZARREN DISTRITA

Azaroaren 21an
21 de noviembre
KAMONIBAI taldea
Taller de KAMONIBAI

Azaroaren 25ean
25 de noviembre
ERRETRATUAK erakusketa
AKORDATEN NAZ agintariek
Exposición ERRETRATUAK
Documental AKORDATEN NAZ
multimedia

Azaroaren 26an
26 de noviembre
URAI FLORRAGA
“Londres kartografiatzen da”

IX. SUD & E-MAG, txapelketa
Dre ama baki. 7
IX CONCURSO DE SUD & E-MAG

EUSKARA AHORA erakusketa
Exposición EUSKARA AHORA

VIII. Nazioarteko Trikitia Jaialdia
VIII Festival Internacional de Trikitia

MIXTAUEN BERTSOAN
Licaso-Pelagarkano

IZARREN DISTRITA GALIren II. edizioa
II edición de la SALA IZARREN DISTRITA

KAMONIBAI taldea
Taller de KAMONIBAI

ERRETRATUAK erakusketa
AKORDATEN NAZ agintariek
Exposición ERRETRATUAK
Documental AKORDATEN NAZ
multimedia

URAI FLORRAGA
“Londres kartografiatzen da”

Azaroaren 21an
21 de noviembre
MIXTAUEN KANTETAN

Azaroaren 26an
26 de noviembre
KONTZERTUA: KEROBIA
CONCIERTO con KEROBIA

Azaroaren 29an
29 de noviembre
“Ino, Ino, Ino, Badator Bombardier”
ANTZITLAN MUSIKALA
TEATRO MUSICAL

Abenduaren 2an
2 de diciembre
“BESTELA ONDOL, EZTAN”
HELDUENTZAKO UMORISTKO ANTZERKIA
TEATRO DE HUMOR PARA ADULTOS

Abenduaren 3an
3 de diciembre
EUSKARIAREN NAZIOARTETKO EGUNA
DISTRITAKU GOGARA eta KANTURATZA
DIA INTERNACIONAL DEL EUSKARA

“Euskal Kantakarien Diarriren” BAKTA EMANADIA
CONCIERTO a cargo de “Euskal Kantakarien Diarriren”

ETA ABENDUAN ET ANATZEN “GETXON DUN” L. PINTXO LERAKETA
Y EN DICIEMBRE NO TE OLVIDES EL CONCURSO DE PINTXOS “GETXON DUN”

informazioa: www.getxo.net

GETXOKO KOMIKI ETA MANGA AZOKA SALÓN DEL CÓMIC Y MANGA DE GETXO

VIII

27.28.29 AZAROA-NOVIEMBRE 11.00-14.30 / 17.00-21.00
PLAZAS DE LA ESTACIÓN DE LAS ARENAS Y STA. EUGENIA DE ROMO (BIZKAIA)



PREZIOA: 2.5 € *

(PARA TODO EL DÍA/EGUN OSORAKO) * CON LA ROJA DE BBK + 1 GRATIS

www.salondelcomicdegetxo.net

